

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Elur jausia eta gero, errua ez bota elur maluta bati

MIKEL ZUBIMENDI > 11

2017ko otsailaren 11 | XI. urtea • 505. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



IZAN DIREN ETA IZANGO DIREN
EMAKUME ZIENTZIALARIAK



Analisia: Balio unibertsalak 03

**Grezian harrapatuta geratu diren
iheslariek futbola maite dute** 08

**Atzoko eta biharko emakume
zientzialariak** 12

**Emakumeen Espetxe Martxa
Feminista** 18

**E.lkarrizketa: Yolanda
Gonzalez-Rabago** 22

**Elikagai ekologikoak sustatzeko
kanpaina abiatu du ENEEKek** 27

Infraganti: Huntza 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

10 Oier Gorosabel: Zenbatean
behin joan

fisioterapeutarengana?

11 Mikel Zubimendi: Elur jausia
eta gero, errua ez bota elur
maluta bati

17 Unai Iturriaga

20 Gaizka Amondarain: Super
Glue

21 Garazi Goia: «La la»...
distrakzioak

30 Maider Iantzi: Heziketa txarrari

30 Saioa Iraola: Ez gaude bakarrik



{ analisia } Mikel Zubimendi Berastegi

Iraultzaren perla unibertsalak

Ekerrak berezko demontrea izan du gai ezberdinen aurreko analisi egoki bat, ideologia apropos bat, definizio politiko zehatz eta posizio moral zuzen bat izateak, nolabait, boterea eskuratzera eramango zuen ustea. Hamarkadetan zehar, ikaragarriko energia bideratu du zeregin horietara. Argi ikusi da, baina, horrekin ez dela nahikoa.

Teoria iraultzaile batek oso kontuan hartu beharko luke iraultza bat sekula ez dela egiten aurrez pentsatuta zegoen bezala, iraultzaileen usteen arabera. Oso zalantzaragarria da estandar ideologiko zurrinak, ahalegin moralak, makinaria politiko egokia bat izateak hain aldakorak diren zirkunstantzietan nabigatzeko beharrezko taktika eta estrategia sortzaileak eskaintzen dituen ustea. Itsaso ekaiztsuetan nabigatzen ikasi beharra baitago, edo itoko gara.

Bizi ditugun kaos betetako garaiotan, iraultzaren aldeko lanak ideologiaren mugaldeak gainditzen ditu. Agian horregatik, mugimendu iraultzaileek ezin dituzte egun herritarren bihotzak eta buruak ideologia soilarekin irabazi. Zerbait gehiago behar da, unibertsalak diren balioak behar dira: berdintasuna, bakea, maitasuna, lurra, askatasuna, demokrazia... Bai, jendeak balio unibertsaletan sinisten du. Eta bai, balio unibertsalak balio iraultzaileak dira. Izan ere, herri bat antolatu nahi duenak, ez du soilik herritarrak bizi eta lan egiten duten tokietara joan behar. Horrekin bakarrik ez da aski. Pentsatzen eta sinisten dutenarekin ere konprometitu beharra dauka.

Lehenagotik entzunda ditugu iraultzarako dei hauek guztiok,

eta aurrerantzean ere beren oihartzunak entzuten jarraituko dugu: “Askatasuna, berdintasuna, senidetasuna” frantziar iraultzaren leloa, edo Leninen “Bakea, ogia eta lurra” sobietar iraultzan; biek ordezkatzeko dituzte balio unibertsalak. Ameriketako Estatu Batuen independentziaren aldarrikapenean *we the people* zen subjektua eta «bizitza, askatasuna eta zoriontasunaren bilaketa» defendatzen zen. Pancho Villa eta Zapata mexikar iraultzaileen leloa “Lurra eta askatasuna” zen, eta Ho Chi Minh buruzagi iraultzaile vietnamdarrek bere programaren lehen puntuan «gizaki

guztiak berdin sortuak dira» zioen irmo. «Munduko langileak, bat gaitzen!» Karl Marxen aldarria nola ahaztu...

Zalantzarik gabe, aipatutako dei guztiok unibertsalak diren balioen defentsa egiten dute. Are, Vietnametik Irlandaraino, munduan egon diren independentziaren aldarrikapen iraultzaile guztiek abertzaletasuna balio unibertsalekin lotzen dute, askatasunaren aldeko manifestu klasiko bihurtuz. Eta behin gogoratzen hasita, nola ez gogoratu Che Guevararen hitzok: «Utzidazue esaten, barregarri geratzeko arriskuak arrisku, benetako iraultzailea maitasun

sentimendu handienek gidatu behar dutela». Patrice Lumumbak, berriz, antinperialismoa eta identitate politiko berriak lotuz, «independentzia eta afrikar batasuna» elkarrekin aldarrikatzen zituen.

Inspirazio, aspirazio

Balio unibertsalek balio iraultzaile klasikoak berrasmatu eta berrinterpretatzen dituzte. Har dezagun adibidez *Power to the people* edo “boterea jendeari” ideia. AEBen konstituzioan boterea *we the people* (“gu jendea”) subjektuaren esku jartzen da. Irlandar anai-arrebentzat gaelikozko *sinn féin* esamoldea da gakoa, hots, “gu geu”. *Amandla awethu* diote Hegoafrikan xhosa hizkuntzan; hau da, “boterea gurea da”. Pantera Beltzek *all the power to the people* edo “botere osoa jendearentzat” oihukatzen zuten eta John Lennonek kantatzen zuen *power to the people* hura, 60ko eta 70eko hamarkadetako mugimendu iraultzaile eta kontrakulturalen ideal maitatua zen.

Iraultza guztiok balio unibertsalak zituzten inspirazio eta aspirazio, eta milioika jende mugitu zituzten. Askatasuna, baina, ez da zapalkuntzatik libratzea bakarrik. Pertsona eta herri, nor bere burua gobernatzeko boterea izatea da.

Balio unibertsalok mugimenduen mugimendu baten elkartasuna eta koordinazioa lortzeko baliabide egokiak dira. Bihotzak eta buruak irabazteko aukera handiagoa eskaintzen dute. Zabalak dira, muga argirik gabeak, eta horregatik funtzionatzen dute. Jende ezberdinak modu ezberdinean ikusten eta bizitzen dituelako. Hala behar du gainera, eta *il faut faire avec*.


Hobe da mundu berri baten egile izatea mundu zahar baten kritiko izatea baino. Bizi dugun kaosaren itsaso ekaiztsuetan nabigatzeko, iraganean bezala geroan ere, balio unibertsalak balio iraultzaileak dira eta itsasorratz ditugu.



Hau da, “errealitatearen gainean eraiki behar da”.

Balio unibertsalak gure ideal iraultzaile gisa hartzen baditugu –ideologia zehatz bat baino askoz gehiago dena–, ezkerrek berezkoak dituen amaigabeko polemika eta behar ez diren banaketetatik alden daiteke. Jendearen pentsaerarekin konektatu eta aldaketa eraldatzaileetara hurbildu.

Gurean, euskal iraultzak aberria, askatasuna, berdintasuna, bakea eta senidetasuna esan nahi badu, orduan, bide hori komunitate, identitate eta mugimendu guztietatik barna pasa behar da. Ezinbestean. Bide guztiak ibili behar dira. Historiak erakutsi duelako mugimendu politikoak ezin direla ikuspuntu bakarrera mugatu. Borroka gaitzean, behar den gogortasun eta amorruz, askatasunaren, berdintasunaren, bakearen eta aberriaren alde. Iraultzaren bidean, balio unibertsal horien alde, beti.



daitezke aukerak. Erronka ederra baita argitasun ideologikoren konfort, erantzun erraz eta makinaria politikoaren aurrean amore ez ematea. Ezinegonean egotea, beti. Hortxe nonbait baitu estrategia egoki batek egoitza naturala, egon dauden kondizio materialetan, kontraesana baita mugimendu politiko ororen kondizioa.

Beraz, erantzun estatiko binarioak, “zuria ala beltza”, “barruan ala kanpoan”, “ona ala txarra”, “dena ala ezer ez”, bere horretan, ez dira baliagarriak. Harago ikusi beharra dago, horizonte sakonagoetara begiratu. Bata ala bestea baino, bata eta bestea, biak, behar baitira.

Iraultza harribitxia da

Milaka eta milaka herritar antolatzeko, egiazko iraultza batek sortu egin behar du, ez bakarrik suntsitu. Benetako mugimendu iraultzaile masiboak eskuzabalak dira, kideen eta borroka tradizioen onena hartzeko gai. Eta sarri, balio unibertsaletan ordezkatzen dituzte beren buruak. Izan ere, kritika hutsa, oposizioa egitea eta eustea ez dira aski jendearen babesa lortzeko. Askoz hobe baita mundu berri baten egilea izatea mundu zahar baten kritikoa izatea baino.

Mugimendu iraultzaile batek kulturarekin eta historiarekin lan egiten du. Iraganeko eta oraineko material kulturalak moldatuz eta berreraikiz, aurreko ondarea jasoz eta bizi dugun munduan eraginez, mundu berria sortzen du. Iraultzaileak langilea izan behar du, ez berritsu hutsa, ezta troll oztopatzaile bat ere. Bere esku eta buruarekin existitzen den mundua laboratzen du,

Bata eta bestea, biak

Krisiak areagotu ahala, sakontasun eta hedadura puntu altuenera iritsita ere, bistan da baldintza objektiboek bakarrik ez dutela iraultza bat ekarriko. Jakina, ideiak eta ideologiak inporta dute, baina iraultzaren bidean, gure herri eta herritarrek mendearen hartzen dituen boterearen kontra egin behar badugu, zorrotasun ideologikotik eta posizio moraletatik harago joan behar da.

Gure ikuspuntu ideologiko eta utopikoak egon badauden baldintza eta indar sozial errealean oinarritutako sentsibilitate estrategikoekin osatu behar dira. Ez zaio soilik desira ditugun helburu eta idealei be-

giratu behar. Iraultza bat ez da opariak eskatzeko Olentzerori idatzitako gutun bat.

Jendea nola eta zergatik mugitzen den jakin behar da. Nola altxatzen diren kontzientziak. Eta hori, eztabaida bat irabaztea edo politikoki zuzena izatea baino askoz gehiago da. Kontua ez baita zeintzuk diren analisi txukun eta egokiak osatzen duten ideiak. Edo denetan analisisia marxistenean zeinek irabazten duen “purutasunaren urrezko baloia”. Kontua milaka aberkide martxan jartzea da, ekintza beren gain hartuta, hori ahalbidetuko duen estrategia ardatz. Hartara, mugimenduen barrutik eta

Leninen «Bakea, ogia, lurra» edota Zapata eta Pancho Villaren «Lurra eta askatasuna» aldarri iraultzaileek, oihartzuna izan zuten Ho Chi Ming gidari vietnamdar handiaren obran.
GAUR8

kanpotik eraginez, probisio-nalki sikiera funtziona dezakeen estrategia batek balio unibertsalak behar ditu nahi eta nahi ez. Baliook helburu eta arrazoibide izan behar ditu, eraldaketa eta berreraikuntza, bietan jarrai, iraultzaren neurri historiko eta modu gertagarriena bezala ulertuz. Hartara, onespen isil eta kontsumo pasiboak baino, botere iraultzailearen konpromisoak, ekintzaletasunak, parte hartzeak eta eztabaidak sortzen dutela barneratu behar da.

Gure buruak zuzen-zuzena eta estu-estu den bide politiko batetik distantzia hartzera behartuz, hobeto aprobetxa



«We the people» sinple bezain iraultzailea du abiapuntu AEBetako independentziaren aldarrikapenak. GAUR8



Irlandan, gaelikozko «sinn féin» esamoldeak «gu geu» esan nahi du.

eta hori eginez mundua berri-
tzen du, harribitxi bat den
iraultzaren balioak distiratzten
utziz. Gizakiek beren historia
egiten dute, bai, baina ez nahi
bezala, ez haiek aukeratutako
zirkunstantzietan. Existitzen,
iraganetik edanda eta jasota-
koan eraginez baizik.

Hil diren belaunaldietakoen
borroka tradizioek bizi direnen
burmuinetan, amesgaizto ala
ez, ikaragarri pisatzen dute.
Oso presente daude. Iraganeko
borroka izpirituak konjuratu
egiten dira oraingo borroken
zerbitzura. Haien balio eta bo-
rrokarako deiak maileguan
hartzen dira, ez aurrekoen bo-
rrokak parodiatzeko, ezta ima-
jinazioan magnifikatzeko edo
nostalgian bertan gozo egote-
ko ere. Iraultzaren izpiritua
behin eta berriz aurkitzeko eta
bizitzeko baizik.

Nola ezagutu, baina, iraultza
bat bertatik bertara ikustean?
Etimologian, zaharrak berri,
kantak dioen bezala, *revolu-
tion is in the air*. Alegia, erda-
razko *revolution* horren “re”
aurrizkia. Iraultzak, baina,
etsai handiak ditu. Beldurra
eta fatalismoa dira denetan
handienak. Izan ere, hain da
zaila sinistea arazo izugarriak
edo saihestezinak diruditen
katastrofeak erraz gaindi dai-
tezkeenik! Bi etsai horien au-
rrean konfiantza indartzen
duen diskurtsorik gabe, balio
unibertsalean oinarritutako
estrategiarik gabe, ahaleginak
ahuldu egiten dira.

Ez da fede kontua. Edozein
dela sortutako eta transmititu-
tako historia edo ondarea, ez
dugu gure burua engainatu be-
har. Iraultzak eta hura bultzatu
duten mugimenduak oso-oso
material eskasak dira, arraroak
benetan. Agian horrek esplika-
tzen du zergatik gauden gau-
den bezala. Edonola ere, iraul-
tzaileak berriz jarri behar ditu
martxan narratiba handiak ba-

lio unibertsalen inguruan, as-
katasunaz, berdintasunaz edo
herri botereaz. Bestela, beste
batzuek egingo dute eta iraul-
tzaren aurka erabiliko dituzte
euren narratiba propioak.

Etsipenari tolerantzia

Ildo politiko zuzen-zuzenaren
edo historiaren subjektuaren
inguruko eztabaidek mugi-



Mandelak argi zuen: «amandla awethu», hau da, «boterea gurea da». GAUR8

mendu erradikalen barne bizi-
tzari forma eman eta herria
antolatzen gasta zitezkeen ika-
ragarritzko energiak xahutu di-
tuzte. Aurre egin behar zaien
problema edo dilemetan kate-
atzen da iraultza gogo: alda-
keta ala jarraipena, edo bieta-
tik pixka bat; arlo pertsonala
eta politikoa banatu edo kohe-
rentziaz jokatzeko beharra;
idealak edo interesak, zeren al-
de –edo zergatik ez bien alde?–
egin behar den; dena antola-
tu –zorte ona ere bai?– edo au-
kerak aprobeztatu behar diren;
eboluzioa ala (“R)boluzioa”...

Iraultzaileak aldaketa sozial
eta kultural sakon-sakona desi-
ratzen du, baina prest egon be-
har du halakorik ez dela sarri
gertatzen barneratzeko. Etsipe-
narekiko tolerantzia maila
handia izan behar du eta pers-
pektiba historiko aski argazki
handia eguneroko erresisten-
tzia ekintza txikieta ikusteko,
gogo-bihotz pixkanakako au-
rrerapenean eta aldaketa ebo-
lutiboan jarduteko.

Historiako oso momentu
arraroetan salbu, hala nola de-
presio ekonomiko handiak edo
mundu gerrak, aldaketak pix-
kanaka ematen dira. Bestalde,
iraultzaren erroa jendearengan
dago eta pentsamenduak oso
modu geldoan aldatzen dira.


Mentalitateak anbarrean ha-
rrapatutako intsektu prehisto-
rikoen antza du. Teknologiak
eta beste ziztu bizian alda dai-
tezke, baina neurozientziak ar-
gitara ekarritako buruko mis-

terioek diotenez, gure garunen
funtzionamendua ez da milaka
urteetan apenas aldatu eta per-
sonen bizi zikloan ez da asko-
rik aldatuko.

Mentalitateen iraultza batek,
halaber, beharrezkoak diren
maila askotako kontraesanak
sortzen ditu: pentsatzeko mol-
dea eta gure buruaz pentsa-
tzen duguna aldatzea eskatzen
du, gure uko, ezin eta errakun-
tzei begietara begiratzea, orain
arte egindako gauza asko egite-
ari uztea, eta, gainera, hein
handi batean, zailtasuna bider-
katuz, hori guztia orain arteko
jende berdinar egitea.

Hortaz, iraultzaileek pentsa-
menduari eta ekintzaren
eboluzioa lagundu behar di-
tuzte. Izan ere, eboluzioa uler-
tu eta gauzatzen jakin gabe,
nola jakin iraultza egiten?
Proiektu ameslarienak ere tar-
teko helmuga edo programak
behar ditu, iraultzarako kopu-
ruak handitu eta kalitatea ho-
betu, ke eta ispiluen joko neka-
garri batean galduko ez bada.

Iraultzailea egon dagoen
mundutik abiatzen da beti, ez
egotea nahiko lukeenetik. Den
bezalako mundua onartzeak ez
baitu, inolaz ere, mundua alda-
tzeko desira ahultzen. Ez ditu
printzipio iraultzaileak alborat-
zen, ez ditu haren oinarriak,
pipiak bezala, barrutik jaten, ez
du estrategia konprometitzen,
ez du betikoa egitera kondenat-
zen. Dagoena dagoela, iraul-
tzaileak ez du haren gainetik
aldarera igo eta handik ser-



Sobietarrek eta mexikarrek «bakea», «ogia», «lurra» eta «askatasuna» bezala, Che Guevarak «maitasuna» jarri zuen iraultzailearen benetako balio unibertsal bezala.
GAUR8

ko duten zain bagaude, lasai egon gaitzke, beti zain egongo baikara. Horri ezin dakioke teoria deitu.

Plana, lana eta zortea

Iraultzaileak sortzailea izan behar du. Esperimentatuz ikasten duena. Estrategikoki pentsatu behar du, eta herria antolatzea beti asmo iraultzailearen erdian jarri. Bereak bezalakoak ez diren ikuspegi politiko aurrerakoiak preziatu eta ospatu egin behar ditu. Eta ahalegin eraldatzailea eraiki posizio aurrerakoi horien guztien ikuspegi, bitarteko eta estrategiak barnebilduz.

Eboluzioa ez delako lineala, eraldatu eta berreraikitzea, gure aurreko kultura eta tradizio iraultzaileen onenarekin konektatuz, mundua aldatzeko bidea da. Interesak eta idealak, biak defendatu behar dira, berehalako interesak eta ilustratuagoak direnak uztartu, balio unibertsalekin batera.

Iraultzarako lana antolatu egin behar da eta planak lanean jarri. Etorkizuna, baina, ezin da sekula aurreikusi eta horretan saiatzea denbora galtzea da. Hala ere, kontingentzia planak ezinbestekoak dira. Aurreikuspen onenen arabera agertoki bat sortu behar da, eta beste bat bigarren aurreikuspen onenentzat. Beti izan behar da kontuan, baina, plangintza batek ez dituela erruak ala zorte txarrak ekiditen.

Egia borobilaren zurrunkeria alboratu eta iraultzaileak behar-beharrezkoa duen malgutasun taktikoa besarkatu behar du. Eta duen plana duela, ezustearen aukerak beti aprobetxatu behar ditu, sarritan, arrakastaren atea direlako.



moia botatzerik, mundua etengabe kritikatu, fariseismoa ekintza sozialaren eta elkartasunaren etsaia delako. Ezin du sekulako botere fantasiarik kontsentitu. Botere ilusio handi-mandi horiek, tentagarriak izan arren, zer dakarten argi baitago: matxinada olatu handi bat gidatuko duten uste faltua, arbela garbi-garbi utzita, mundua bere ideologiaren arabera berregiteko moduko ispi-lua bailitza.

Iraultzaileak behatu eta eba-luatu egin behar du etengabe,

horiek dira bere lehen abilitadeak. Ulertu egin behar du zein egingo duen lan, entzun, paziente izan. Ez iritsi, hitza hartu eta jendeak zutitzeko eta matxinatzeko beharra balu bezala jardun.

Oinarri sozial eta militantearen esperientzia eta kultura errespetatu behar ditu. Ideologo bat balitz bezala ezin du jokatu, sinesmen erradikalen jabea dela sinistuta, horrek, azkenean, desmobilizatu egingen duelako. Bere ordena intelektualari, nagusitasun mora-

lari eta ezaugarri estetikoek balio gehiegi eman, mundu kontraesankor eta desordenatu honen aurrean horrela jokatzeak, harroputza izateaz gain, ez du batere laguntzen.

Ideologiak, jakina, inportatu. Ezin da, baina, mediku baten errezeta bezala, edozein gertakariaren aurrean edonola dispentsatu. Ideologia izugarri erabilgarria da, bai, baina, formula bat baino, erreferentzia orokor bezala. Zurruntasun ideologikoak sentsibilitate esperimentala zauritzen du beti.

Kontzientzia historikoa izateak baretu egiten du aurrerapauso iraultzaile handi eta atzeraezinen narratiba, errotikako matxinada orokorretan oinarritua den historia bera pentsatzeko modua. Bestalde, aurreikuspen apokaliptikoek ia beti porrota dakarte altzoan.

Ideologia erradikal eta iraultzaile pila daude. Baina funtzionatzen duen iraultzaren teoriarik ba ote dugu? Protestek, amorru moralak, abilezia analitikoak eta zurruntasun ideologikoak, berez, boterea ekarri-

7haizetara

BIDAIA ALDIZKARIA

DAGOENeko ZURE
KIOSKOAN SALGAI

100.
ZENBAKIA
MILA ESKER!



SAN PETERSBURGO

SALVADOR DA BAHIA • ITXINA • THAILANDIA • CHRISTIANIA

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7haizetara

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN

IHESLARIAK EUROPAN

Grezian ez aurrera ez atzera geratu diren errefuxiatuek futbola maite dute

 **JENDARTEA** / Patxi Gaztelumendi

Urrunetik etorritako gazte askoren ametsa da orain Europa. Batzuk harrapatuta daude Grezian, eta denbora da soberan duten gauza bakarra. Eta egoera horri aurre egiteko kirola da aukeretako bat. Bazter guztietako errefuxiatuek futbola maite dute, eta ametsak gauzatzeko zeregin ere bilakatu da beraientzat. Futbolean aritu, lana egin eta paperak lortzea da uneotan duten zeregin nagusia. Etorkizuneko proiektuak dituzte, baina ezin dute Greziatik mugitu. Horregatik denbora eramangarriago egiteko ekintzetan aritzen dira.

Gazteekin joan gara futbolera; Atenas hiriburu-ko Exarchia auzo gainera, muino batean dagoen kantxa txukunera, bertan ematen baitituzte orduak adin eta jatorri ezberdinetako errefuxiatuek.

Beraiek ere talde batean jokatu nahiko lukete, berriki Hope Refugees futbol taldekoek egin duten bezala, edo Alemanian jokatzen ari diren Lampedusa taldekoen antzera. Beraien istorioak batu ditugu lerrootan. Eta hurrengo partidarako hitzordua egin dugu. Hasi da partida!

Errefuxiatu eremu batean zeuden jokalariek osatu dute Hope Refugees taldea. Petros Kokallis Olympiakos taldeko le-

hendakariordeak sortu eta kudeatzen du taldea. Eta batez ere Skaramangas errefuxiatu eremuko jokalariek osatzen dute. Astero entrenatzen hasi ziren denboraldia hasi zenean, eta egun liga txapelketa bat jokatzen ari dira.

Entrenatzailea bera ere ez da edonor: Antonis Nikopolidis Greziako selekzioako atezain izandakoak hartu du Hope Refugees taldearen kirol ardura. 2004an Europako txapeldun izandako atezainak, aurretik Olympiakos eta Panathinaikos taldeetako atea zaindu zituen. Orain, nahiago du astean hirutan 24 errefuxiatu gazteri aginduak ematea, beraiekin denbora ematea, gerra eta miseria atzean utzi nahi dutenei kirolean aritzeko aukera eskaintzea.

Gehien sufritzen ari direnen ondoan aritzeko hautua erraz eta azkar hartu zuen Antonis Nikopolidisek. Izan ere, berak aitortu digunez, bere arbasoak ere Turkiaren menpe zegoen Pontotik etorritakoak ziren. 1920ko hamarkadan heldu ziren Greziako hiriburura Itsaso Beltzeko Turkiako itsasertzetik. Orain berak hartu du lekukoa, Siria, Palestina, Afganistan edo Iraketik etorritako jokalariei euren bizitza berrian lehen urratsak egiten laguntzeko.

Europako mugak erabat itxi aurretik, itsasoz leku batetik edo bestetik Europara heldutako iheslari ugari Mediterraneo-ko Lampedusa irlan elkartzen ziren. Orduko irudiak ahaztezinak dira. Horietako askok Alemaniara jo zuten. Baina han ere



Beheko irudietan ikus daitekeen bezala, errefuxiatu batzuk profesionalen moduan jartzen dira kameraren aurrean, beste batzuk futbolean bufanda kendu gabe aritzen diren bitartean. Eskuinean, Hanburgoko Lampedusa taldeko entrenatzaileak (goian) eta jokariak (behean, bizkarra emanda) ikus daitezke.

Patxi GAZTELUMENDI

egoera latzak bizitzera ohitu behar izan zuten. Hanburgo hirian zeuden errefuxiatu gehienak kale gorrian zeudela, elkartasuna zer den badakiten pertsona batzuek futbol talde bat osatu zuten beraiekin. Bertako Saint Pauli talde ezagunak hartu zuen horren ardura. Eta Lampedusa izena jarri zioten errefuxiatuen talde osatu berriari. Hiru neska dira taldea kudeatzen dutenak. Entrenamenduak eta ekipoaren gorabeheren araberrako errekursoak antolatzekeo ardura guztia beraiena da, eta hori bera ere





gauza arrunt berritzailea da futboleant. Lampedusa futbol taldea ofiziala da gaur egun, eta bigarren mailan aritzen da Alemanian. Berriki Bartzelonaren kontra aritzeko aukera izan zuen, eta gazte askoren ametsa bete egin zen munduko jokalarionen ondoan jokatzeari.

Okupatutako hainbat gune daude Atenasen: City Plaza, Kanigos, Trikupi, Jazmina... Bakoi-tzak futbol ekipo bat osatu du. Errefuxiatuen bizitza eraman-garriago egiteko guneak dira. Bizilekuak. Errefuxiatuen kanpa-

menduetan baino hobeto daude okupatutako leku horietan. Hiri- bertan daude eta pertsonak bezala bizi dira. Hori da helburu nagusia. Eta horregatik, *squat* horietan laguntzen zuten Rapok eta Elenak errefuxiatuen talde- on arteko liga bat antolatzea pentsatu zuten. Esan eta egin!

Larunbatero partidak antola- tzen dituzte, eta astean zehar errefuxiatuen talde ezberdinak entrenamenduak egiteko bil- tzen dira. Talde ezberdinentzat jantziak lortzen ari dira. Poza- rren ari dira gazte errefuxiatuak beraien ligan.

Elenak txistua jo eta hasi da partida. City Plaza eta Jazmina elkarren kontra. Bi ekipoetan herrialde ezberdinetatik etorri- tako kideak daude. Baina bakoi- tzak bere gunea okupatzen du, siriar, kurdu, afganiar edo ira- kiar izanda ere. Lagun artean ari dira, hizkuntza eta kultura ez- berdinak izan arren eguneroko bizitzan. Baina futbol kantxan arerio dira orain.

Partida ikustera errefuxiatu gehiago iritsi da. Beraien sorle- kuetan futboleant aritutakoak dira errefuxiatuetako batzuk. Futbolzale amorratuak. Errefu- xiatuei laguntzen aritzen diren boluntarioak ere etorri dira. Okupatutako gune ezberdinetako kideak dira ikusle gehienak. Exarchia auzoan garagardo bat edo kafea hartu eta lagun giroan bilduko dira ondoren Grezian harrapatutako futbolari errefu- xiatuak.





Oier Gorosabel
Fisioterapeuta eta osteopata

Zenbatean behin joan fisioterapeutarengana?

Mea culpa! Ez, lasai, ez naiz judu-kristauen ariketa faboritoan hasiko. Esaldi horrekin iradoki nahi dudana gauza bakarra zera da: osagileok ere, gure jakituria handitzeko bidean, sineskera zaharrak baztertu behar izaten ditugula sarri, bereziki ebidentzia zientifikoari jaramon egiten badiogu. Horretara, mesfidatiak izan zaitezte egia kategorikoen aurrean: behinola era batera formulatutako teoriak, urteak joan urteak etorri aldagaitz dirautenak, eta argudio nagusitzat «beti horrela egin izan da» eta «niri ongi doa-kit» dutenak.

Sarrera hermetiko xamarra geratu zait benetan; gauza gehiegi hitz gutxitan adierazi nahi izatearen ondorioa izaten da hori, osasun munduan bizi dugun maremagnumaren puntatxoa. Baina utz ditzagun eztabaida deontologikoak profesionalen arteko eztabaidetarako: gaurko gaia, beste askotan legez, irakurle batek eginiko galdera baten haritik tiraka ekarri dut. Beatrizek galdetu dit: «Zenba-

tean behin joan behar da fisioterapeutarengana?». Duela urte gutxi arte, «hilean behin» esango nion; orain, berriz, «zenbat eta gutxiago, hobe» esango nuke.

Nola uler liteke hori? Askok harridura aurpegia jartzen dute horrelakoak esaten dizkiedanean: haien iritziz negozio baten jabea naiz, eta, beraz, bezeroak fidelki etortzea bilatu beharko nuke. Hain zuzen ere, esaten denez, premiarik ez dagoen lekuan premia sortzean datza arrakasta komertziala. «Nola izan daiteke zure helburua bezerorik ez etortzea?». Ez dira gutxi horrela pentsatzen duten lagunak, osasuna nolabaiteko merkantziatzat hartuta. Baina haiendako negozioa dena, niretzako, zerbitzua da; eta haiek bezerotzat hartzen dituztenak, niretzako, pazienteak dira.

Bistan da hori horrela izan arren alde ekonomikoa ere zaindu behar dugula: bokazioak bokazio, bizitzak baditu beste esparru asko, eta hilerak fakturak ordaindu behar dira. Baina horrek ez du justifikatzen gaixotasunekin salerosketan aritzea, jendea premia-

rik gabe guregana etorraziz. Gainera, esango nuke osagileren batek horrela jokatzeko badu diru gehiago irabazteko asmotan, agian sorpresa hartuko duela. Jendea ez da hain tontoa. Demagun bi aukera daudela: bata, hilean behin berarengana joatera “kondentzen” zaituen terapeuta; bestea, behin osatutakoan berriz ez gaixotzeko gakoak ematen dizkizuna. Nik esango nuke pertsona azkar batek, fisioterapeuta baten premian dagoenean, bigarrena aukeratuko duela. Horietatik bizi nahi dut nik, ez nire menpekotasuna duten paziente gatibuez.

Beste gauza bat da paziente batzuek, borondatez edo halabeharrez (denek ez baitute kirola eta horrelakoak egiteko astirik) tarteka zuregana etortzen jarraitu nahi izaten dutela. Ondoi! Ez ditugu bidaliko, noski. Baina ez dugu inor engainatu behar: bere osasunaren giltza aurkitzen dugunean (eta batzuetan ez da erraza), eskura eman behar diogu. Berak erabaki behar du harekin zer egin. •

www.abante.eus



Alde ekonomikoa zaintzeak ez du justifikatzen gaixotasunekin salerosketan aritzea.

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Elur jausia eta gero, errua ez bota elur maluta bati

Stanislaw Lec poeta poloniarrek badu aforismo eder bat jorratu nahi dudan gaiari heltzeko aproposa: elur jausiaren arduradun sentitzen den elur malutarik ez dago. Usaindu ere egin ez diren hondamenen aurrean, hain zaila da iluntasunaren gure parte aitortzea! Berrien zaparradaren erdian, eguneko 24 orduetatik harago doazen bilakaerak ikustea! Harridura eta amorrua sortzen duten berriak jasotzen ditugu, baina berriok oso gutxitan sortzen dute erresistentzia serio bat. Besteak beste, sakonean gertatzen ari dena deskuidatzen dutelako.

Asteari zeharka begiratzeak demontre hori du, hots, ia beti gertakari batetik hasi beharra dagoela, bat-bateko argazki batetik. Baina gaurkoan ez, gaurkoan demontrea aztertu eta ideia batzuk josi nahi ditut. Rob Winjberg "The Correspondent" medio holandarraren editoreak berriki proposatu duen eztabaida batetik haria hartuz.

Berriak denbora zehatz batean egokitu behar dira, puntualtasuna eskatzen dute, gaur bertan, orain, eta ez datorren hilabetearen argitaratuak izateko arrazoia bere baitan dute askotan. Egiturazkoak diren bilakaerek ez dute "balio informatibo" handiegia. Har dezagun, adibidez, isil-isil eta geldo, egunero-egunerokoa den aldaketa klimatikoaren kontua. Ez dago lehen orrialdeetan, munduan soilik kazetariak baleude, arazo hori ez zen gure atentziora hurbildu ere egingo. Berriak eguraldiaren ingurukoak direlako, ez klimaren ingurukoak.

Horren ondorioz, krisi handiak beranduegi den arte ez dira radarrean azaltzen. Agoniaren galderak datoz gero: «Nola ez genuen etortzen ikusi? Zertan egin dugu kale?» Zooma dagoeneko definituta dauden ekintzetan jartzen dugu, ikusten (eta gutxietsi ezin) diren mehatxueta, hala nola, ISISen barrabaskeriak, eta horiekin betetzen ditugu orrialdeak eta tertuliak. Kamerek unean unekoa enfokatzen dute, etenik gabe, egunetik egunera gertatzen diren eta garai oso bat definitu eta belaunaldiak edo planetaren biziraupena bera konprometi dezaketen bilakaerak ahaztuz. Leherketa handia eta ondorio katastrofikoak pantailetan agertzen diren arte. Orduan bai, orduan bai komeriak! Zooma kanporatu eta mundu mailako hainbat bilakaera gogoratuz, banku handien kolapsoa nork

aurreratu zuen? Nork kleptokrata fanatiko bat "mundu librearen" zuzendari exekutibo aukeratuko zutela? Datorrena, gainera, okerragoa izango da. "Egiaren osteko aroaren" gaineko eztabaida gorabehera, bistan da egiaren aurrean zalantza ereiteko aroa dela egungoa. Konpartitua den errealitate bat ez egoteak, instituzio bezala sinengarriak diren medioen existentzia galbidera eraman dezake. Eta hori baino gehiago: mesfidantza horri iragazkorra den gizarteak, demokrazia osoki eraisteko, faxismoari ateak irekitzeko, baldintza perfektuak ditu.

Egoera ikusita, medioek oso maiteak dituzten "dogma" batzuk alboratzeko ordua ere iritsi da. Baga, negozio ereduarena. Diru-sarreraren mende jarraitzea, atentzio hornitzaile soil izaten segitzea da, funtsean, azken produktuan aldaketa handiegirik egin gabe. Biga, lehia. Atentzioa irabazteko gerran medioak lehiakide diren bitartean, lankidetza mesfidantza orokortu batekin begiratzen bada,

Faxismoak ez du bere etorreraz abisatzen, krisi handiak beranduegi den arte ez dira berrien radarrean azaltzen. Agoniaren galderak datoz gero: «Nola ez genuen etortzen ikusi? Zertan egin dugu kale?»

hain konplexua den puzzlea osatzeko indarrak konbinatzerik ez da egongo. Higa, objektibotasuna. "Neutral mantentzea" eta "posiziorik ez hartzea" bezalako jarrerak kazetaritza mota baten Grial Santua izaten segitzen badute, gertakarien inguruko epaia historiagileei utziko zaie. Ikusten diren tendentzien gaineko hipotesiak formulatu eta puzzlearen piezak lotzen saiatu behar da. Eta laga, formatua. Sail tradizionalen arabera pentsatzen jarraitzeak (Kirolak, Ekonomia, Kultura, Iritzia...), sortzen den informazioa, argazki handiago bateko osagai baino, informazio osatu gabea izatea dakar. Gertakari bakanen informazio banatuetan bainoago, gehitze prozesu batean pentsatu behar da, bilakaeren patroiak, ereduak identifikatu ahal izateko.

Dena dago jokoan. Hori guztia ezin du euskal egunkari txiki batek bakarrik egin. Ez honek, ezta beste batek ere.

EMAKUMEA ETA ZIENTZIA

Izan diren eta izango diren emakume zientzialarien Nazioarteko Eguna da gaur

 **ZIENTZIA** / amagoia.mujika@gaur8.info

Orokorrean, emakume gutxiagok aukeratzen du zientziaren bidea, eta, bide horretan gero eta aurrerago joan, are eskasagoa da emakumeen presentzia. Emakumeen rol zientifikoak gutxi dira eta daudenak ikusezin bihurtzen dira gehiegitan. Baina, hala eta guztiz ere, badira emakume zientzialariak, puntakoak, eta gaur dute beren eguna.

Stephanie Kwolek kimikariak Kevlar zuntza sintetizatu zuen. Inge Lehman sismologoak lurra- ren nukleoa bi atalez osatuta dagoela deskubritu zuen. Virginia Apgar medikuak jaioberrien osasunaren egoera aztertzen duen testa sortu zuen, gaur egun mundu osoan erabiltzen dena. Mary Anning paleontologoak lehen iktiosauroaren eskeletoa aurkitu eta zehatz identifikatu zuen. Nafarroan jaiotako Dorotea Barnes iker- tzailea aitzindaria izan zen ki- mika alorrean. Marie Tharp geo- logoa izan zen itsas hondoa- ren lehen mapa egin zuena eta Lise Meitnerrek fisio nuklearra aur- kitu zuen lankideekin batera. Denak emakumeak, denak zien- tzialariak eta denak –bide neko- soaren ondoren– lorpen oso ga- rrantzitsuak egin dituztenak. Haien izenak, baina, askotan apartatuak izan dira historiaren kontaketa “ofizialetik”.

Emakume eta Neska Zientzia- larien Nazioarteko Eguna da gaur, otsailak 11, Nazio Batuen Batzar Nagusiak hala erabaki baitzuen 2015eko abenduan. Bi- garren edizioa du, beraz, Nazio- arteko Egunak, bidearen hasie- ran dagoen seinale. Egunak balio beharko luke atzera begi- ratu eta zientzian bide propioak eta garrantzitsuak ibili dituzten emakumeen izenak gorritz azpi- marratzeko eta, era berean, au- rrera begira neskek eta emaku- mezkoek zientziaren bidea aukeratzeko orduan topatu ohi dituzten trabak eraisteko. Ho- riek dira helburuak.

Nazio Batuak datuak jarri ditu mahai gainean; hamalau he- rrialdetan egindako ikerketa ba- ten arabera, zientzia arloan ikas- ten ari diren emakumeek lizentziatura bat, maisutza bat eta doktoretza bat amaitzeko probabilitatea %18koa, %8koa eta %2koa da, hurrenez hurren. Ikasle gizonezkoen kasuan, be- rriz, %37koa, %18koa eta %6koa da probabilitatea.

Azken hamarkadetan uniber- tsitate ikasketak dituzten ema-

Ikerlari bat laborategian lanean, Donostian dagoen CIC NanoGUNEan.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

kumeen kopurua dezente igo da eta ikasle guztien %50 baino gehiago izatera iritsi dira. Hala ere, ikasketen arabera banake- tak desorekatua izaten segitzen du. Zientziaren zenbait alorretan, fisikan eta ingeniartzetan kasu, emakumeen presentzia gi- zonezkoena baino askoz txikia- goa da.


Desoreka hori, gainera, nabar- mendu egiten da karrera iker- tzailean aurrera egin ahala. Bio- medikuntzaren eta gizarte zientzien adarretan emakume- en kopurua gizonena baino handiagoa da; baina, era berean, ikasketa mailan gora egin ahala, emakume kopurua dezente jais- ten da.

Lidergo postua gero eta gora- go, emakumeen presentzia urriago. Horren atzean daude emakumeek karrera ikertzaile- an aurrera egiteko topatzen di- tuzten trabak, generoagatik su-

fritzen duten ikusezintasuna eta beren lana sustatzeko dituz- ten oztopoak. Baina ez horiek bakarrik, bestelakoek ere zango- trabatzen dituzte. «Badirudi emakumeek garrantzia gutxia- go ematen diotela lidergoari be- ren lan ibilbidean».

NESKEN INTERES FALTA

Universumek herrialde desber- dinetako 600.000 ikaslerekin egindako ikerketaren arabera, «zientziaren arloko ikasketak aukeratu dituzten emakumeen %21 ingururentzat lidergoa le- hentasan bat da. Gizonen arte- an, %30 dira lidergoari garran- tzia berezia ematen diotenak. Hori horrela gertatzen da uni- bertsitate garaian emakumeek erakutsitako lidergoa gizonez- koena baino handiagoa izaten den arren. Gainera, emakumeek interes gehiago agertzen dute lana eta etxeko bizitza uztartze-





Jon URBE | ARGAZKI PRESS

NANOZIENTZIAREN ARLOAN TONTORRAK MARRAZTU DITUZTEN EMAKUMEAK

Nanogunean ospakizun berezietan aritu dira astenon. Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekintza antolatu dituzte, tartean Women in Nanoscience izeneko workshopa. Nanozientziaren arloan lider garrantzitsuak diren hainbat emakumek beren lanak aurkeztuko zituzten lehenbizi eta, ondoren, ibilbide zientifikoan gainditu behar dituzten oztopoen inguruan jardun zuten mahai-inguruan.

Irudian jardunaldian parte hartu zuten zientzialariak, ezkerretik eskuinera: Aitziber Lopez Cortajarena, Maria Jose Santesmases, Elke Scheer, Reyes Calvo, Judith Driscoll, Nagore Ibarra, Maica Morant eta Ana Beloqui.

ko orduan -%57- gizonezkoek -%49- baino».

Neskatoak gutxiago gerturatzeko dira zientziaren bidera, karrera ikertzailerara. Dagoeneko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean garbi sumatzen da joera hori. Oro har neskatoek beren etorkizunari begira mutikoek baino espektatiba hobeak dituzte, baina 15 urteko neskatoetan bostetik batek baino ez du lanbide teknikoetara bideratzeko interesa agertzen, %7 inguru. Aldiz, osasungintzaren alorreko ikasketetan interesa dutenen ehunekoa adin horretako neskatoetan %15-17 ingurukoa da.

Zientziarekiko interes falta horren atzean arrazoi bat baino gehiago daude. «When Women Stopped Coding» txostenak jasotzen dituen gako batzuk gertatzen dena ulertzeko lagungarri gerta daitezke.

«Normalean, inguru sozialak, etxeakoak zein eskolakoak, ez ditu berdin bultzatzen neskatoak eta mutikoak ikasketa zientifikoak eta teknikoak aukeratzeko orduan. Neskatoak orokorrean urduriago eta ziurgabeago agertzen dira, esaterako, matematikaren aurrean, nahiz eta beren

emaitzak onak izan alor horretan. Irakasleek hobeto ebaluatzen dituzte neskatoak ikasgai ez zientifikoetan eta gurasoek ere espektatiba gutxiago izaten dituzte alabekin zientziarekin eta teknologiarekin lotutako lanbideetan. Errazago lotzen dituzte etorkizunean semeak halako lanbideekin. Gainera, teknologia alor maskulinoa bailitza aurkeztu da askotan».

Etxetik eta eskolatik jasotako estereotipo horiek karga handia dira neskatoentzat, handiegia. 2009an Estatu frantsesean egindako ikerketa bat da horren erakusle argia: «11 eta 13 urte arteko berrehun bat neska-mutikorekin neurketa batzuk egin zituz-

ten, estereotipoek zer-nolako eragina daukaten jasotze aldera. Ariketa bat proposatu zieten ikasleei: marrazki geometriko konplexu bat buruan hartu eta kopiaitzen saiatzea. Ariketa denentzat berdina zen arren, taldearen erdiari esan zioten proba geometrikoa zela, eta, beste erdiari, marrazketakoa. Neskatoen emaitzak nabarmen kaskarragoak izan ziren ariketa geometriko bat egiten ari zirela uste zuten artean. Aldiz, marrazketari lotutako ariketa bat egiten ari zirela pentsatzen zuten nesken emaitzak askoz hobeak izan ziren. Mutilen artean ez zen desberdintasunik egon batzuen eta besteen artean».

«Normalean, inguru sozialak, etxeakoak zein eskolakoak, ez ditu berdin bultzatzen neskatoak eta mutikoak ikasketa zientifikoak eta teknikoak aukeratzeko orduan»

«Emakume zientzialariei buruz hitz egiten den gutxietan, ohikoa da pertsona arraro gisa aurkezte, erabat lanari lotuak dauden bizitza pertsonal eskaseko pertsonak bailiran»

Hori gutxi ez eta emakumeen rol zientifikoan falta handia dago. Emakumeen presentzia txikia da zientziaren munduan eta egon diren edo dauden gutxi horien lana ikusezin bihurtzen da askotan.

«Gainera, historian barna hainbat emakume zientzialarik egindako bidea ikusita, egungo neskatoek eta gaztetxoek pentsa dezakete zientziaren bidea oso gogorra dela, traba handiak daudela bereziki emakumearentzat eta lana bizitza pribatuarekin uztartzeko zailtasun handiak dakartzala».

NOLA AURKEZTEN DIREN

Orokorrean testuliburuetan eta komunikabideetan apenas ematen diren ezagutzera bai emakume zientzialariak bai emakume adituak. «Emakume horiei buruz hitz egiten den gutxietan, ohikoa da pertsona arraroak bailiran aurkezte, erabat lanari lotuak bizi diren eta bizitza pertsonal eskasa duten pertsona moduan aurkezte. Gainera, itxura fisikoa eta adimena ezin direla eskutik joan ematen da ulertzeraz askotan. Hartara, ematen diren estereotipo horiek direla eta gerta daitezke neskato

asko eta asko bide horrekin batera erakarriak ez sentitzea eta aitzindariak izan diren horiekin ez identifikatzea».

Bada ikerketetan nabarmendu den beste joera bat: normalean, bide zientifikoa aukeratzeko emakumeak kausa sozial batera lotzeko joera izaten dute.

«Ikerketa desberdinetatik ondoriozta daitezke nesken eta mutilen arteko ikasketa banaketa horretan eragina dutela interes sozialek. Alegia, neskek joera dute erabilgarritasun soziala duten espezialitateak aukeratzeko eta zenbait espezialitate teknikok ekar dezaketen onura soziala ez da hain ezaguna edo bistakoa, fisika eta ingeniaritzak kasu. Aldiz, biomedikuntzako alorrak askoz zuzenago lotzen dira onura sozialarekin. Horrek ere badu bere partea neskek aukeraketan».

Berriki egindako ikerketa baten arabera -ikasketa teknikoak egiten dituzten 600.000 ikasleri egindako galdeketa oinarri izan dituen-, zientzia karrerak egiten dituzten emakumeek %40 inguruk kausa sozialetara gerturatzeko joera dauka. Gizonezkoen kasuan, berriz, portzentaje hori %29koa da.

AITZIBER LOPEZ CORTAJARENA BIOKIMIKAN DOKTOREA ETA CIC BIOMAGUNEN IKERKETA ZUZENDARIA

«Traba asko gainditu ditut, baina ez dakit bereizten horietatik zeintzuk izan diren emakumea naizelako»

Aitziber Lopez Cortajarena 2016ko urtarrilean hasi zen CIC biomaGUNE Ikerbasqueko ikertzaile bezala lanean. Nanoteknologia Biomolekularreko taldea zuzentzen du eta Europako Ikerkuntza Kontseiluak finantzatutako proiektu batean dihardu buru-belarri. ERC Consolidator Grant deituriko finantzazioa garrantzia handikoa da ikerkuntzaren alorrean, proiektu berritzaileak bultzatzen ditu eta babes ekonomiko handia eskaintzen du. Euskal Herrian finantzaketa hori lortu duen emakume bakarra da Aitziber Lopez Cortajarena, nahiz eta nahiago duen horregatik baino bere proiektuaren pisuagatik nabarmentzea.

Zertan da zure ikerketa?
Gure ikerketa lerro nagusia nanoteknologian erabiltzeko proteinen ingeniari-tza da. Ikerketa zertan datzan azaltzeko orduan arazo nagusia izaten da kontzeptualki jendeak proteinak elikagaiekin lotzen dituela. Proteinak gure zeluletan edo sistema bizidunetan funtzio desberdinak dituzten molekulak dira. Esaterako, proteina bat da DNA gordetzen duen entzima; ilea proteinaz egin dago; muskuluak proteinaz egin daude; muskulu-uzkurdura proteinen mugimenduen bitartez egiten da... Proteinek funtzio asko dituzte eta organismoak bizirik mantentzen dituztenak dira. Hortik abiatuta, naturan inspiratuta eta proteinek sistema bizidunetan dituzten

egitura eta ekintza ugariak kontuan hartuta, proteina horiek moldatzen saiatzen gara, ingeniari-tza egiten, alegia. Hartara, sistema naturaletan existitzen ez diren diseinuzko proteinak sortzen saiatzen gara. Etorkizuneko ideia da beharren neurrira egindako proteinak sortzea.

Erabilera anitzak izan ditzakete, beraz, sortutako proteina horiek?
Bai, alor askotan erabil daitezke. Biomedikuntzan, esaterako, sistema bizidunak erregulatzeko balia daitezke eta gaixotasunak sendatzeko ere bai. Baina, era berean, zenbait egitura edo material sortzeko ere erabil daitezke. Esan dizudanez, ilea bera proteinaz osatuta dago, baita armiarma sarea ere. Hortik abiatuta, diseinuzko proteinak erabiliz ezaugarri oso interesgarriak dituzten materialak sor ditzakegu. Biomedikuntzatik hasi eta aplikazio teknologikoetara, eremu zabala har dezakete proteina horiek.

Europako Ikerkuntza Kontseiluko ERC finantzazioarekin ari zara lanean. Beka oso garrantzitsua da, ezta?
ERC proiektu bat da nirea eta bost urteko finantzaketa dauka. Ideia berritzaileak finantzatzen dituzte eta laguntza oso garrantzitsua dakarte proiektuarentzat. Proiektu pertsonalak direla esan daiteke; ikertzaile batek bultzatutako ideia bat da abiapuntua, eta, laguntza horri esker, lantalde bat osatzen du ikerkuntza

horretan buru-belarri sartzeko. Gu sei gara taldean; doktoretzako bi ikasle, doktoratu osteko hiru ikerlari, teknikari bat eta ni. Normalean proiektu oso lehiakorrak izaten dira. Ez da erraza ERC beka bat lortzea eta oso lagungarria gertatzen da ikerkuntzarako finantzaketa hain eskasa eta ezegonkorra den garaio-tan. Urte batzuetarako baliabideak ziurtatzea oso lagungarria da ikerketa batean

abiatzeko. Finantzaketa urtez urte berri-tu behar duzunean, askoz zailagoa da proiektu berritzaileetan abiatzea.

Euskal Herrian ERC finantzaketa duen emakume bakarra zara. Zure inguruan nolakoa da panorama? Gizonezkoak edo emakumezkoak, gehiago?
Zentroan, orokorrean, erdi eta erdi gabela esango nuke. Baina ikerketak zuzentzen dituzten ikerlariak kontuan hartuta, ni

naiz emakume bakarra. Hala ere, konturatuta nago azkenaldian foku mediatikoa nire gainean dagoela jarrita emakume naizelako eta oso arraro sentitzen ari naiz. Egia da horrek bistaratzen duela parekidetasuna ez dela existitzen, gainontzean ni ez nintzateke nire lankideen desberdina izango hedabideentzat. Horrek adierazten du oraindik parekidetasuna urrun dagoela. Izan ere, parekidetasuna

«Kristalezko sabaia eta emakumearekiko diskriminazioa zientziaren alorrean akaso ez dira oso nabarmenak edo bistakoak, baina hor daude»



balego, nire kasua ez litzateke berezia izango eta arreta guztia ikerketa proiektuetan egongo litzateke, eta ez hainbeste ikerketa talde hori zuzentzen duenaren generoan.

Kristalezko sabaia zientzian ere existitzen da. Traba asko gainditu behar izan al dituzu zauden tokira iristeko?
Traba asko gainditu behar izan ditut orokorrean, karrera zientifikoa oso lehiakorra eta oso gogorra delako. Zaila egiten zait bereiztea gainditu ditudan traba horietan zeintzuk izan diren generoagatik, emakumea naizelako, eta zeintzuk ez. Nire lankideek, gizonezkoak izanagatik, traba asko gainditu behar izan dituzte eta ez dakit esaten zertan izan diren desberdinak haien trabak eta

nireak. Kristalezko sabaia eta emakumearekiko diskriminazioa zientziaren alorrean akaso ez dira oso nabarmenak edo bistakoak, baina hor daude. Oso barruan sartuta dagoen eta akaso oso modu leunean aurkezten den zerbait da, zure ibilbidean argi eta garbi identifikatu ezin duzuna, baina hor dagoena.

Ikasketa garaian, nolakoa zen egoera zure inguruan?
Nik Biologia Biokimikoa ikasi nuen eta alor horretan emakumeak ez ginen gutxiengoa. Doktoretza egiterako orduan ere, paretsu ginen gizonezkoak eta emakumezkoak. Orokorrean horrela izaten da, gainera. Are gehiago, doktoretzatan askotan emakumeak gehiago dira gizonezkoak baino. Baina garbi

dagoena da karrera zientifikoa aurrera egin ahala, gero eta emakume gutxiago topatzen direla puntako postuetan. Une batean estatistiken kurbak gurutzatu egiten dira, eta emakume gutxiago eta gizon gehiago agertzen dira, nahiz eta ordura arte akaso joera kontrakoa izan. Esaterako, biomedikuntzaren alorrean emakumeak gehiago dira unibertsitate karreran eta baita doktoretzak egiten ere. Doktoratu ostekoan berdintzen hasten dira gizonezkoen eta emakumezkoen kopuruak eta hortik aurrera, lidergo postuetan, gizonezkoak gehiago dira. Oso argigarria da.

Emakumezkoen rol zientifikoen hutsunea dago. Emakume zientzialari gutxi

izan dira eta izan direnak ikusezin bihurtu dituzte. Zure kasuan, zein erreferente izan dituzu?
Nire kasua berezia izan da. Nire tesiaren zuzendaria emakumea zen. Doktoratu ostekoa Yaleko Unibertsitatean egin nuen, Ameriketako Estatu Batuetan, eta bertan ere emakume batek gidatutako talde batean aritu nintzen. Emakume hark sekulako ibilbidea zuen eta erreferente oso garrantzitsua zen bere alorrean. AEBetan izan dudana esperientzia ere lagungarria izan da, panorama hemengoa baino hobea delako. AEBetan emakumeek toki esanguratsuagoa dute zientzian eta niretzat argigarria izan da bide propioa eta oso oparoa ibili duten emakume zientzialariak ezagutzea. Zientzian emakume batek bide propioa egin dezakeela ikusi eta ikasi dut AEBetan.

Egia da, hala ere, hemengo panorama desberdina dela, emakumeen rol zientifiko askoz gutxiago daude eta horrek emakume ikertzaile gazteen ibilbidea baldintzatzen du zalantzarik gabe. Ikusten baduzu emakume gehienek asko jota teknikari postuetan amaitzen dutela, ez direla lidergo postuetara iristen, horrek baldintzatu egiten du zure bidea. Niretzat, adibidez, oso garrantzitsua izan da lidergo postuetara iritsi diren emakumeak ezagutzea.

Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna da gaur. Garrantzitsua da horrelako egun bat izatea, ezta?
Baietz uste dut. Nik pentsatzen nuen arazo hau gaindituago zegoela, akaso AEBetan egon naizen ingurunean ez zelako hain bistakoa emakumearen diskriminazio egoera. Baina egia da hemengo egoera desberdina dela, txarrerako gainera. Karrera zientifikoaren hasieran dauden emakume horientzat oso garrantzitsua

da horrelako egun bat izatea, nahi dutena egin dezaketela sinistu behar baitute.

Garrantzitsua da norberak bere aukeretan sinistea. Baina karrera zientifikoa mentoreak edo zaintzaileak izatea ere garrantzitsua da, ezta?
Bai, zalantzarik gabe. Nire kasuan doktoratu osteko nire gainbegiralea beti nirekin egon da eta asko bultzatu nau, asko animatu nau benetan nahi dudana egin dezadan. Batzuetan nire talde propioa zuzentzeko zailtasunak izan ditut eta bestelako lan eskaintzak sortu zaizkit, teknikari postuetan-eta. Horrelakoetan berak beti motibatu nau ez nezan lan bat hartu besterik gabe eta nire proiektuan sinisten segi nezan. Niretzat oso garrantzitsua izan da bere bultzada. Zientifikoki hazten ikusi nau eta beti sinistu du nigan. Hori ezinbestekoa da.

Umetatik garbi al zenuen zientzialaria izan nahi zenuela?
Akaso joera bat agertzen nuen ja txikitatik. Gauzak ulertzeko beharra eta jakin mina beti izan dut. Akaso handitzean zer izan nahi nuen galdetzen zidatenean ez neukan erantzun garbirik, baina ibilian-ibilian deskubritu dut nire bidea.

Etxekoek beti ulertu dituzte zure erabakiak?
Nire etxekoaren eskuzabaltasuna oinarritzkoa izan da egin dudana bidean. Zortzi urte eman nituen AEBetan eta etxekoentzat ez da erraza izan, baina nire amak beti esan izan dit gustatzen zitzaidana egitea eta ni zoriontsua izatea nahi zuela. Akaso ez dute oso garbi ulertzen zer egiten dudana, badirudi beti ikasten ari naizela, beti paper artean, ez daukadala benetako lan bat... baina beti babestu naute nire erabakietan. Hori oso garrantzitsua izan da niretzat.



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

«Ikusten baduzu emakume gehienek asko jota teknikari postuetan amaitzen dutela, ez direla lidergo postuetara iristen, horrek baldintzatu egiten du zure bidea»

REYES CALVO

CIC NANOGUNEKO IKERTZAILEA

«Oso umetatik sentitzen dute neskatoek zientzia ‘mutikoen gauza’ dela»

NanoGUNEko ikertzaileak, bere ikerketa lerroaz gain, bestelako lanak izan ditu azken asteotan: Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunaren harira jardunaldiak antolatzea. Zertarako? Emakume zientzialarien lana bistaratzeko eta neskatoei zientziaren ateak parez pare irekita dituztela ikusarazteko.

Esanguratsua da Nazioarteko Egunaren izendapenean bertan neskatoa aintzat hartzea. Oso goiz ixten zaio zientziaren atea emakumeari, ala?

Hori horrela da, eta horregatik daude gero, karrera zientifikoetan, emakume gutxiago. Oso umetatik sentitzen dute neskatoek zientzia “mutikoen gauza” dela. Duela aste pare bat “Science” aldizkarian argitaratu den ikerketa batek garbi uzten du oso txikitatik, 6-7 urterako, neskatoek barneratzen dutela jarduera intelektual handia behar duten gauzak mutikoentzat egokiagoak direla, eta beraiek hobe dutela beste gauza batzuetara bideratu.

Burutazio hori ez zaie bat-batean okurritzen neskatoei. Sentipen hori jendarteak eraikitzen du.

Zalantzarik gabe. Jostailuetan bertan oso garbi ikusten da bereizketa bat egiten dela. Puzzleak, pentsatzeko jolasak, ordenagailuak –garai batean batez ere, gaur egun ez hainbeste–, askoz gehiago

bideratzen zaizkie mutikoei. Neskei, berriz, panpinatxo bat zaintzen erakusten zaie maiz. Jostailuak aukeratzeko unetik bertatik dago bereizketa. Eta ez dut uste aukeraketa hori neska-mutikoei bakarrik egiten dutenik, uste dut jendarteak bideratu egiten duela zer gustatu behar zaizun eta zer ez.

Orokorrean, karrera zientifikoak gutxiago erakartzen ditu neskatoak.

Arazoa da hori nondik datorren, zergatik gertatzen den. Txikitatik ulertarazten zaie ez direla hain iaioak matematikan eta zientzia gaietan. Etxean zein eskolan espektatiba desberdinak sortzen dira neskatoen eta mutikoen inguruan. Azkenerako, noski, neskatoek interesa galtzen dute alor zientifikoan. Bada ikerketa bat, Israelen egina, frogatutzat ematen duena irakasleek desberdin ebaluatzen dituztela neskak eta mutikoak matematikan eta zientzian. Ikerketa horren arabera, joera dago neskatoak okerrago ebaluatzeak ikasgai horietan. Horrek ere bere eragina dauka, noski. Estereotipo horiek hautsi egin behar dira eta neskatoei iristen zaien mezua aldatu egin behar da.

Unibertsitateko ikasketak aukeratzeko unean estereotipoak karga bat dira, beraz.

Unibertsitatean joera ez da hain nabarmena. Gogoan dut fakultatera joaten nintzenean,



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Fisikako ikasketetan, %60 inguru gizonezkoak zirela, eta, %40, emakumezkoak. Aldea ez zen hain nabarmena. Arazoa da karrera zientifikoan aurrera egin ahala proportzio horiek asko aldatzen direla, eta emakumeen kalterako.

Azken urteotan, hala ere, panorama aldatzen ari al da? Emakume gehiago animatzen al dira zientziaren bidea hastera?

Baietz esango nuke, nahiz eta aldaketa oso mantso gertatzen ari den. Emakume batek ingeniaritza bat egitea erabakitzen badu, oso garbi izan behar du hautua. Ikasketa horiek berez dira zailak eta gutxiengo baten parte izateko segurtasuna ere behar da. Alegia, segur aski ikaskide gehienak gizonezkoak izango dira eta egoera hori kudeatzen ere jakin behar da. Aparteko zailtasun bat izan daiteke kasu batzuetan.

Matilda efektuaz ere hitz egiten da, emakume zientzialarien lana ikusezin egiten duena; aldizkarietan lanak gutxiago argitaratzea, hitzaldietara ez gonbidatzea, sariketetan kontuan ez hartzea...

Nik uste dut oinarrian

«Neskatoei txikitatik ulertarazten zaie ez direla hain iaioak matematikan eta zientzia gaietan. Etxean zein eskolan espektatiba desberdinak sortzen dira neskatoen eta mutikoen inguruan»

«Bada ‘John eta Jennifer’ izeneko ikerketa bat frogatzen duena curriculum berdina izan arren, John izena duenak abantaila duela Jennifer izena duenaren parean»

jendartearen joera dagoela eta gutxiengo guztiek sufrizten duten zerbait dela; gutxiago akordatzeko direla haiekin eta ikusezin bihurtzen direla. Finean, jardunaldi batzuk antolatzen ari diren guztiak gizonezkoak baldin badira, seguru gizonak gonbidatuko dituztela.

Badira joera horri buruzko ikerketak ere. Bada “John eta Jennifer” izeneko ikerketa bat frogatzen duena curriculum berdina izan arren, John izena duenak abantaila duela Jennifer izena duenaren parean.

Aipatu Nazioarteko Egunak bigarren urtea du aurtengoa. Bidearen hasieran al gaude?

Duela 50 urte baino hobeto gaude, zalantzarik gabe. Baina oraindik lan handia dago egiteko. Denbora guztian gutxiengo bati buruz ari gara, zientziaren bidean abiatzen diren emakumeak gutxiengo direlako. Baina, jendartearen, emakumeak ez gara gutxiengo bat, herritarren erdia gara. Niretzat garrantzitsua da datu hori ez ahaztea, nabarmen uzten baitu oraindik gauza asko ditugula konpontzeko. Parekidetasuna lortu gabeko helburua da oraindik eta bidean oso mantso goaz.


HITZEK ESANAHIA GALDU ZUTENEAN...



...MARRAZTEARI EGIN GENION.



MARRAZTUTAKOA MOZTU...



...ETA ZAKU BATEAN SARTU GENUEN.



HAIZEAK ERAMAN ZIEZAZUN...




...ZURI...



IZAR.

iRRITZIA:



Unai
ITURRIAGA

BORROKA FEMINISTA

Emakumeen Espetxe Martxa Feministak «berariazko errepresioa» salatuko du

 **FEMINISMOA** / Xabier Izaga Gonzalez

Erakunde gaztea dela esan liteke. Hamabost urte beteko ditu apirilean. Hala ere, aurrekari ugariren eta oro har euskal feminismoaren borroka luzearen esperientzia biltzen du Euskal Herriko Bilgune Feministak bere baitan. Beraz, 2017 ospakizun urtea dute, baina, batez ere, lan urtea, beren konpromisoa berresteko eta Euskal Herriaren burujabetza feministarantzko bidean sakontzeko. Dagoeneko hainbat ekimen aurreikusi dituzte aurtengorako, eta horietan lehena, gaur bertan izango den Espetxe Martxa Feminista.


Bilgune Feministaren erronka nagusietakoa gatazkaren konponbidean ikuspegi feminista txertatzea da. Sakabana-keta salatu eta preso eta iheslari denak etxeratzea eskatzen du, eta giltzapean dauden emakumeen egoeran jarri dute beren jardunaren fokua, egoera hori berezia den aldetik. Beresia eta, zenbait kasutan, oso larria. Hori gainditzea funtsezkotzat jotzen du gatazkaren konponbiderako. Euskal emakume presoek pairatzen duten zigorraren gaineko zigorra espezifikoa dela kontuan izanda, espetxe martxan emakumeek soilik parte hartuko dute, emakume izateagatik zigor erantsia jasaten dutenen identitate kolektiboa indartzeko asmoz.

Euskal emakume presoek ezarritako «berariazko errepresioa» zorrotz aztertzen du Itziar Moreno euskal preso politikoak «Borroka feminista kartzelan» artikuluan (GARA, 2017-01-13). Beraz, eta presoan auzia eta oro har gatazkaren ondorioak konponbidean jartzea gizarte osoaren arazoa eta ardura direla argi izanda ere, martxaren helburuak «emakume presoek jasaten duten zapalkuntza anitza salatzea eta espetxeen izaera patriarkala jopuntuan jartzea» dira.

«LIBRE EZIN, ASKE GARA»

Gaurko martxa Valladolideko espetxera abiatuko da «Libre ezin, aske gara. Indar bat dabil hor»

Euskal Herriko Bilgune Feministak bere hamabosgarren urteurrena ospatuko du aurten, baina ospakizunak ez dio lanerako gogorik kenduko. Aitzitik, Urteurrena bere konpromisoa berresteko baliatuko du. Aurreikusita dituen ekimenetako bat gaur bertan egingo du: Valladolideko espetxera doan Emakumeen Espetxe Martxa Feminista.



goiburuaren pean. Kartzela horretan Nahikari Otaegi donostiarra da euskal emakume preso politiko bakarra, eta hori ere bada hara joateko motiboa, bera bezala zenbait kartzelatan bakartuta dauden hamabi lagunuen egoera salatzeko. Hori bai, «emakume preso politiko guztiak eta beraien senideak barnebiltzen dituen dinamika bat» abiatu dute. Horrez gainera, garrantzitsua dela uste dute kartzela Euskal Herriko urrunegi ez egotea, ekimen jendetsua izatea espero baitute eta parte hartzea errazteko egun berean joan eta itzultzeko martxa egitea erabaki baitute, zuzen erabaki ere, dirudienez, espero ez zuten harrera izan baitu gaurko hitzorduak. Ekimenerako sortu dituzten kamisetak helarazi dizkiete emakume presoek, baita haien senideei ere, bisitetara jantzita eraman ditzaten. Martxara doazen lagunek ere soinean eramango dituzte. Eta 14:15ean, Izar Mendigurenek ekimen horretarako espresuki egin duen bertsoa abestuko dute.

Martxaren goiburua eta irudia sortzeko Ekhi Eizagirre euskal preso politiko eta Bilgune Feministako kideak egingako olerkiak eta eskultura bat erabili dituzte. Hona olerkietako baten zati bat kartzelako errepresioaz eta euskal feministen jarreraz:

*Maiz esaten da, espetxean,
"emakume" izendatu
gaituztenok
bi aldiz gauzkatela preso
Bi aldiz epaitzen gaituztela
eta hamaika erataraz zapaldu.
Egia da.
Baina gu, zapaltzen gaituzten
bakoitzean
berriz altxatzen gara,
elkar eusten dugu
elkar zaintzen eta maitatzen.
Eta horregatik irauten dugu
tinko eta zutik
eskulturako ukabila bezala.*

HAMABOST URTE ETA GEHIAGO

Euskal Herriko Bilgune Feministak, esan bezala, badu zer ospatua eta ospatu egingo du, baina ez du bertan goxo egin nahi, eta urteurren hau bere konpromisoa berresteko baliatuko du. Izan ere, urte hasierak erakutsi du ez



dagoela atsedean hartzerik, are gutxiago beste aldera begiratzerik. Eguneroko erasoak, gutxi balira bezala, nahikoa larriak ez balira bezala, Blanca Marquesen, Sara Majarenas euskal preso politikoaren alaba Izarren eta beste hainbaten kasuek indarkeria matxistak ez duela mugarik erakusten dute.

Duela hamabost urte hainbat esparrutako emakume ugari egin zuten hausnarketatik sortu zen Bilgune Feminista, borroka feminista sendotzeko, lan egiteko modu berriak asmatzeko eta «sareak josteko». Konpromiso politikoa eta aliantzak oinarri, sistema patriarkalaren ankerkeria agerian jarri eta «berdintasun politika, diskurtso eta praktika faltsuei aurre egitea» izan dituzte jardunbide nagusiak.

Hartara, 2002an xedatu zuten plan estrategikoa ardatz, Euskal Herriaren egoera sozial, ekonomiko eta politikoan eragin izan dute, etengabeko eguneraketa eta egokitzapenak eginez. 2014ko abenduan, Ondarroako VI. Topaketa Feministetan transizio feministaren oinarriak adostu eta hiru erronka nagusi zehaztu zituzten: «Euskal Herriaren burujabetza feministaren gaineko eztabaida soziala sustatzea, ondo bizitzaren kontzeptualizazioan eta praktikan sakontzea –pobrezia eta prekarizateari aurre egiteko ekinbi-

Goian, Espetxe Martxa Feministaren kartela; eskuinean, Emakume Abertzaleon VI. Topaketa Feministak. Behean, Kalera Kalera ekimenean parte hartu zuten emakume preso ohiak, kartzelan dauden emakumeen askatasuna aldarrikatzen.

Aritz Loiola eta Gorka Rubio
ARGAZKI PRESS

deak ahaztu gabe– eta burujabetza feminista lortzeko lidergo indartsu bat ehuntzea».

Fleury Merogisko presondegitik bidalitako idatzian, honela laburbiltzen du Itziar Morenok Bilgune Feministaren ibilbidea: «Hiru bosturteko hauetan euskal feminismoak orratz txikiz jositako urratsez nahiz aizkorakada ausartez egin du bere bidea, auzo-herrietatik Euskal Herrira eta handik mundura salto egin; gaur egun, sistema heterokapitalistaren kontrako borrokan, abangoardia errebeldearen ikur izateraino».

BOTERETZE FEMINISTA

Aurten, inflexio puntutzat jotzen dituzten Emakume Abertzaleen VII. Topaketa Feministak egingo dituzte, maiatzaren 6an, boteretze feminista gai nagusi izango dutenak. Baina eki-

men gehiago ere egingo dituzte. Bilguneko komunikazio ardura-dun Iratik dioenez, gai guztiak egun batean lantzeko gehiegizkoak zirela ikusi zuten; beraz, ekimenak banatzea erabaki zuten eta, dagoeneko aurreikusita dituzte, besteak beste, Ekonomia Feminista foroa eta Erakundetze Feministaren inguruko mintegia ere.

Momentu honetan feminismoa loraldian dagoela dio Iratik, «eta ez da Bilgunearen kontua bakarrik, jakina». Zapalkuntza patriarkala integrala dela dio: lan arloan, emakumeen soldatak txikiagoak eta lan baldintza eskasagoak baitira, eta enplegu desberdintasuna ez ezik lan ordaindua eta ordaindu gabekoaren arteko aldea ere emakumearen kalterako da; etxean; espetxean, eta esparru guztietan. Horrenbestez, erantzuna ere

integrala izan behar duela dio. Horrela nabaritu omen zuten ikuspuntu eta borroka feministak arlo guztietara zabaldu beharra, eta azken urteotan ikusita koaren arabera, ukaezina da ikuspuntu feminista gizartean hedatzen ari dela. Erasoan aurrean izaten diren erantzun gero eta ugari eta jendetsuagoak ere hala erakusten dute.

Urte hasierak ekarri dituen Blanca Marquesen hilketa eta Izarren egoerak ez diote poz horri tarte handirik uzten, ordea. «Kolpe handia izan da», dio Iratik, «baina hain zuzen horregatik jarraitzen dugu, hausnartzen, erantzun metodoak pentsatzen... Prozesua luzea da, eta, erasoak etengabeak direnez, zailagoa, motelagoa da hausnarketa eta plangintza lana, egoerak etengabeko erantzuna eskatzen baitu». Baita gizarteko arlo guztien inplikazioa ere. Oso garrantzitsua begitantzen zaio Iratiri prentsaren papera, eta oso argi du zein ez litzatekeen izan behar. Azkenaldion, esate baterako, Bilboko erasoan aurrean, hedabide asko burundangaren erabileran zentratu omen dira, oso diskurtso morbosoa erakutsiz. Eta, gainera, askotan «ez dute mugimendu feminista aintzat hartzen».

Hamabost urteko lana atzean, jarraitzeko gogoia, eta beharra, aurreko erronkei eusteko.

Ekimenerako sortu dituzten kamisetak helarazi dizkiete emakume presoiei, baita haien senideei ere, bisitetan jantzi ditzaten. Martxara doazen lagunek ere soinean eramango dituzte

«Prozesua luzea da, eta, erasoak etengabeak direnez, zailagoa, motelagoa da hausnarketa eta plangintza lana, egoerak etengabeko erantzuna eskatzen baitu», dio Bilguneako kide Iratik



Gaizka Amondarain
Irakaslea

Super Glue

Konfiantza da pertsonen arteko harremanetan, seguruenik, behin hautsiz gero berreraikitzeke gauzarik gaitzenetakoa. Are okerragoa da kontua geure buaruengan genuen konfiantza galtzen dugunean. Kasu honetan, klinexaren belaunaldiko gizagaixoontzat –oi bi aldiz gaixo!–, ez delako dendara joan eta apurtutako portzelanazko loreontzia berri bat erosita ordezkatzeari bezain erraza asuntua. Pazientziaz jantzi eta zati bakoitza elkarren artean itsasteko lan nekosoari ekin behar izaten diogu nahitaez horrelakoetan.

Norbaitengan jarria geneukan konfiantza galtzen dugunean, sikiera, badiugu bi aukera: laguntzat geneukana haizeak hartzera bidal dezakegu, edo, horrek ekar ditzakeen ondorioak patxadaz aztertu eta gero, eta gehiegizko albokalteak saihestearren, interes konpartituan oinarrituko den erlazio bilateral mantentzearekin konforma gaitzke. Txakurrak jaten ematen dion ugazabari zor dion leialtasuna bigarren multzo horretakoa litzateke, esaterako. Edo jasanezina zaigun baina egunero ikusi behar dugun lankidearekin daukagun erlazio klase hori bestela, «egunon» esaterakoan irribarre bat eskaintzera mugatzen dena. Edo azkenik –eta ez horregatik ezohikoagoa den– seme-alaben hobe beharra aitzakiatzat hartuta banatzeko erabakia behin eta berriz atzeratzen duten bikote horiek denek osatzen duten harreman mota ihartua.

Ikustekoa izan da gure hiriko ordezkari politikoek azkenaldian konfiantzaren inguruan hitz egiteko erakutsi duten grina setatia. Edozeinek esango luke komunikabideei erreparatuz gero, Gasteizko Udaleko aurrekontuen afera ezkonberrien arteko liskar bat baino ez dela izan. Hain agerikoa ez balitz, interes ezberdinen arteko talkaren ondorioz gertatu dela gertatu dena.

Duela bi urte, Maroto udaletik bota eta EH Bildu bigarren indar izanda Sabin-etxean Miren Larrion alkate ez egitea, eta gobernua laugarren indarra den eta Urtaranen alde bozkatzeko gai izan ez zen PSErekin osatzea erabaki zutenean bezalatsu. Ordukoan ere, konfiantza kontuen gainetik alderdiaren interesak gailendu ziren gurean. Hemen, esanak esan, ezkontza gehienak komenientziazkoak izaten baitira normalean.

Maitasunak asko du politikotik. Eta politikak gutxiegi maitasunetik zoritarrez. Galduta du garai bateko erro-mantizismo eta epika hura. Orain gauza teknikoagoei buruz eztabaidatzen da. Hotzagoa eta arrazionalagoa da dena. Datuak eta portzentajeak gailendu dira lehenago idealak, utopiak eta antzeko hitz potoloak nagusi ziren eremuan. Horrek eztabaidak errealaagoak izatea ekarri du, eta horrekin batera, aspergarriagoa ere bihurtu da batzuen eta besteen arteko dema.

Politikak gure arteko harremanak kudeatzeko balio beharko luke; pertsona-

lenetatik hasita, jendartearen sortzen diren arazoetarako soluziobide izan. Gauzak hobera aldatzeko tresna da berez. Inozoak ginateke, hala ere, alderdi politikoek hiritarren interesak defenditzen dituztela itsu-itsuan sinetsiko bagenu. Ardura ere, gero eta gutxiago ardura digu horrela den edo ez. Onartua dugu alderdi bakoitzak komeni zaionaren arabera jokatzeko duela modu batera edo bestera. Gero erabaki dezakegu, noski, batzuen interesak etikoki onargarriagoak diren besteak baino –ez litzateke justua denak zaku berean sartzea–, horraino gure irismena.

Argi dagoena da, alderdien artean ez dela demaseko konfiantzarik sumatzen gaur egun. Dagoen bakarra bakoitzaren unean uneko interesen arabera harremana da. Batzuetan jaten ematen dion eskuari horzkarik egiten ez dion txakurraren eta bere ugazabaren arteko harremanaren antzekoagoa izango dena, eta bestetan, jasangaitz zaigun lankideari eskaintzen diogun diosal faltsutik hurbilago dagoena. •



Alderdi politikoen arteko ezkontzak komenientziakoak izan ohi dira nabarmen.

GAUR8

{ koaderno } **Garazi Goia**

«La la»... distrakzioak

Atzera begiratzen dut batzuetan. Gutxi batzuetan. Aurrera egiten dudan bidean, erreferentzia oraindik hor dagoela ikusteko. Bide zuzenetik noala ikusteko. Zehazki duela urtebete, otsaileko bigarren astean, Donald Trumpek New Hampshire estatuan hasi zuen bere lasterketa partikularra, hauteskunde kanpainako lehenengo itzuliko aurreneko garaipena lortu zutenean. Hamabi hilabete horietan zehar egunero egin dituen adierazpenetan erreparatuz edo presidente karguan dagoenetik hartu dituen erabaki guztiak erreparatzen baditut, beti galdera berdina gelditzen zaizkit buruan: baina, noizbait etorriko da erabaki on bat, ezta? Egongo da egun bat, «azkenean, zentzuzko zerbait egin du» esango duguna, ezta?

Orain “New York Times” egunkariko zuzendaria dena, Mark Thompson, BBCko zuzendaria zenean ezagutu nuen eta orduetik arretaz jarraitzen ditut bere ibilbideari buruzko albisteak. Hauteskunde kanpaina garaian hainbatetan kritikatu zuen “The New York Times” Trumpek, bertan argitaratutako hainbat iritzi arbuiatuz eta hainbat kazetariri agiraka eginez. Aste honetan irakurri dudana elkarriketa batean Thompsonen zioen gauza batek atentzioa eman dit: Trump aukeratua izan zen egunetik, 132.000 harpidetza berri lortu ditu “The New York Times” egunkariak, orain dela hiru hilabete halako hamar.

Jendearen jarrera aldatzen ari da: albisteak irakurtzeko ordaintzeko prest zegoen edo egunkariak erosteko joera ez zuen jendea, lehenengo aldiz harpidetza egiten hasi da. Eta antzeko gauza gertatzen ari da telebistako albistegiekin, gero eta jende gehiago dabil informazioa lortu nahian. Adibidez, Donald Trumpek hainbestetan “fake news” etiketapean kritikatu zuen CNN etxeak, 2016. urtean bezainbeste ikusle ez ditu inoiz izan. Erresuma Batuko testuinguruan ere, Brexita bozen %52rekin nagusitu eta Erresuma Batuar Batasunetik aterako zela erabaki zuenetik, “The Guardian” eta “The Independent” bezalako egunkariak inoiz baino irakurle gehiago izan dituzte.

Atzera begiratzen dut eta ez dut ezer onik ikusten. Trumpen ahotik datorren esaldi koherente horren zain nagoen bitartean, ni ere egunkaria irakurtzen hasi naiz, nonbait ezkatututa dagoen albiste horren bila. Kazetari

batek zioen moduan, Donald Trump ez da komunikabide konbentzionalak bertan behera bota dituen. Ironikoki, bere inguruan gailentzen ari den ortodoxia horren guztiz kontrakoa izan arren, akaso komunikabide konbentzionalak salbatuko ditu Trumpek. Tira, positiboa den zerbait eragin du behintzat, zeharka bada ere.

Zutabe hau idazten ari nintzen bitartean, Euskal Herrikoa den lankide bat etorri zait agurtzera. Hamabost urte inguru daramatza Erresuma Batuan. Kezkatuta zegoen, Brexitararen ostean bizileku iraunkor baimena eskatu beharko duelako eta nik zer egin behar dudana galdetu zidan. Ez dakigu zer gertatuko den, eta ziurgabetasun hori kudeatzea ez da askotan erraza. Akaso osasun zerbitzu publikoetara sarrera mugatuko digute edo beste hainbat zerbitzu publikoetarako bigarren mailako hiritar bezala sailkatuko gaituzte. Azken hamabost urteetan zergak ordaindu ditugun arren. Erabaki zentzudunen zain gaude, baina Donald Trump eta Theresa May elkarrekin eskutik helduta ikustean, galderak

Hauteskunde kanpaina hainbatetan kritikatu zuen Donald Trumpek «The New York Times». Aukeratua izan zen egunetik, 132.000 harpidetza berri lortu ditu, orain dela hiru hilabete halako hamar

sortzen zaizkigu. Eta, bat-batean, ahalik eta albiste iturri gehienetan hasten gara albisteak irakurtzen, inork eman ezin digun segurtasun horren bila. Espekulazioak, gezurrezko albisteak eta oinarri sendoko albisteak denak elkarrekin nahasiz.

Atzera begiratu dugu. Eta, duela urtebete hobeto geundela pentsatu dugu.

Bagoaz “La La Land” filma ikustera. Etsita dauden milioika amerikarrei, Hollywoodeko “amerikar ametsa” gogora ekarriko die. Ametsek eta magiak oraindik ere errealitate distortsionatu honetan leku badutela pentsaraziko die. Kontatzen diguten istorioa benetan dena baino funtsezkoagoa dela pentsatuz irribarre egingo dute. Niretzat berriz distrakzio bat izango da, atzera begiratu orde, denbora beste zerbaitetan pasaraziko didana. Erreferentzia non dagoen kuestionatu gabe. •



«Kontua ez da abortuak saihestea, baizik eta gogoz kontrako haurdunaldiak ekiditea»

YOLANDA

GONZALEZ-RABAGO

SOZIOLOGIA IKERLARIA

Haurdunaldiaren borondatezko etendurei desparekotasunak zer neurritan eragiten dien aztertzeke ikerketa egin du Euskal Herriko Unibertsitateko soziologoak beste lau kiderekin batera.

Nagore Belastegi Martin

Abortua beti politikarien ahotan dagoen gai horietakoa da. Arma politikoa ere badela esan dezakegu, hauteskunde kanpainak egiteko ere erabili izan dutelako zenbaitek. Abortuari buruz aritu den mundu mailako azken buruzagia Donald Trump AEBetako presidentea da. Sare sozialetan biziki elkarbanatu zen irudi bitxi bat: Trump mahaian dokumentu bat sinatzen, eta atzean beste sei gizon berari begira. Bada, dokumentu hori osasun hornitzaileei Gobernuak emandako diru publikoa abortuari buruzko informazioa zabaltzeko erabiltzea debekatzen dien lege bat da. Zazpi gizonak emakumeen osasunaren gaineko lege bat nola onartzen zuten ikusi genuen.

Trumpek berak kanpainak esan zuen abortatzen duten emakumeak zigortu egin behar direla, nahiz eta gero atzera egin. 2017an horrelako jarrerak ikusi behar baditugu, argi gelditzen da oraindik ere emakumeen osasun sexualari buruz zeresan eta zeregin asko dagoela. Hori ardatz, Yolanda Gonzalez-Rabago eta bere beste lau kidek abortuari buruzko ikerketa bat egin zuten 2016an haurdunaldiaren borondatezko etendurei desparekotasunak zer neurritan eragiten dien jakiteko.

EHUko Osasunaren Gizarte Determinatzaile eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldeko (OPIK) bost pertsona aritu dira lanean, diziplina desberdinetakoak. Soziologia eta erizaintza arloko profesionalak osatu dute ikertzaile taldea, eta New Yorkeko Hiri Unibertsitatean (CUNY) aritzen den lagun bat ere izan da tartean. Gonzalez-Rabago bera EHUko soziologia ataleko ikertzailea da.

Abortuaren inguruko datu ofizialak aztertuz ondorio batzuk ateratzea zuten helburu, nahiz eta horiek erabakigarriak ez diren. Hala ere, EAEko joeren inguruko pintzelkada batzuk ikus ditzakegu. Ikerketa egiteko datuak Lakuako Gobernuko Haurdunaldiaren Borondatez-

“

«Egoera sozioekonomikoa ez dator bat heziketa mailarekin. Badira emakume etorkin oso kualifikatuak, lan sektore prekarioetan lan egiten dutenak»



Argazkiak: Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

ko Etenduraren Erregistrotik hartu dituzte. «Azken urteetako datuak eskuratzeko eskaera formala egin genuen eta ikerketa datu gordin horietatik

abiatu genuen», azaldu du iker-tzaileak.

12 eta 49 urte bitarteko berta-ko zein emakume etorkinak hartu dituzte kontuan. «Intere-

sa genuen jakiteko EAEn despa-rekotasunak zer neurritan existitzen diren, osasun zerbitzuen erabilera biztanleria guztiaren-tzat unibertsala eta doakoa den

arren, gizarte posizioa edozein dela ere», azaldu zuen.

Datuen arabera desberdintasunak nabarmenak dira. Izan ere, emakume autoktonoen abortu tasa 3,9koa izan zen mila biztanleko, Saharaz hegoaldeko afrikar emakumeena 45,6koa, Hego Amerikako emakumeena 26,5koa, eta, azkenik, Erdialdeko Amerikatik zein Karibetik datozenena 22,9koa.

Abortuen errepikapenei dagokionez ere (1,9 kasu mila biztanleko), emakume etorkinek izan dute errepikapen tasa handiagoa: Saharaz hegoaldeko afrikar emakumeek milako 21,5eko abortu errepikatuko tasa izan zuten, Hego Amerikako emakumeek 9,8koa, eta, azkenik, Errumaniako zein Europar Batasunaz kanpoko beste emakumeek 8,8koa.

Halaber, datuek adierazten dute emakume etorkinen artean abortuak maizago ematen direla lehendabiziko hamabi asteen ondoren. Hala ere, datuek diote emakumeon bizi baldintzek baldintzatzen dutela neurri handi batean atzerapen hori. Izan ere, beren baldintzak berdintzen direnean, bakarrik Erdialdeko Amerikatik eta Karibetik datozen emakumeen artean daude alde estatistiko nabarmenak bertakoen eta etorkinen artean.

Bestalde, Opik taldeak haurdunaldiaren borondatezko etenduran ematen diren aldeak emakumeen ikasketa mailaren arabera ere ikertu ditu: lehen mailako ikasketak edo gutxiago dituzten emakumeek –bertakoak edo etorkinak– milako 17,7ko tasa dute borondatezko abortuetan. Tasa hori milako 6,2ra murrizten da bigarren mailako ikasketak dituzten emakumeetan, eta 3,9ra unibertsitate ikasketak dituztenen artean. Gainera, abortu bat baino gehiago pairatzeko arriskua askoz handiagoa da lehen mailako edo bigarren mailako ikasketak dituzten emakumeen artean (milako 9 eta 2,5, hurrenez hurren), goi-mailako ikasketak dituztenen artean baino (0,7). Abortua atzeratzeko arriskua, haurdunaldiko bigarren hiruhilabetekora arte, handia-

Egunean 250 abortu egiten dira Estatu espainolean, bat bost minutu eta erditik behin

«Informazioa ezin bestekoa da desparekotasunei aurre egiteko eta, ahal den neurrian, gogoz kontrako haurdunaldiak eragozteko»

Bost minutu eta erditik behin abortu bat praktikatzen da Estatu espainolean. Horrek esan nahi du egunean 258 emakumek erabakitzen dutela euren haurdunaldia etetea. Hala ere, datuok ez dira guztiz zuzenak, abortu mota batzuk ez direlako kontabilizatzen.

Estatuko Osasun Ministerioko datuak aztertuz gero, 2010ean lege berria martxan jarri zenetik abortu kopurua jaitsi egin dela ikusten da. 2010ean 113.031 izan ziren eta 2015ean 94.188.

2010eko uztailaren 5ean sartu zen indarrean osasun sexuala eta ugalketa osasunaren oinarritzko eskubideak bermatzen dituen legea. Horren arabera, emakumeek haurdunaldia eteteko eskubidea dute haurdunaldiaren lehen 14 asteetan. Epe hori 22 astera zabaltzen da emakumearen edo fetuaren bizitza arriskuan badago. Epe horretatik aurrera, egoera larriak aurreikusten direnean soilik aborta daiteke.

Datuak guztiz errealak ez direla diogu autonomia erkidego batzuetan abortu kimikoak ez direlako kontuan izaten estatistika hau egiterakoan, eta aztertutako bost urteko epean abortuen %18,5 izan baitira kimikoak. Balear uharteetan zifra horrek abortuen %50eko kopurua gainditzen du, eta, EAEn eta Katalunian, berriz, %40koa. Beste erkidego batzuetan ez da %11ra iristen (Gaztela Leon, Errioxa, Madril, Extremadura eta Kanaria uharteetan %0,2 eta %3,3 bitarteko zifrak dituzte).

Horrenbestez, abortu horiek kontutan hartuz gero, beste 5.000 interbentzio zenbatu behar dira, hau da, 100.000 inguru izango lirateke 2015ean, 2010ean baino gutxiago behinik behin.

Ikerketetan kontuan hartu ez den beste faktore bat hurrengo eguneko pilularen erabilera da. Pilulak haurdunaldiak gutxitzen ditu, eta, beraz, abortuak ere bai. Errezetarik gabe botikan erostea posiblea denez, familia planifikaziorako tresna baliagarria bilakatu da haurdun gelditu nahi ez duten emakumeentzat. Kontrako ahotsek zioten antisorgailuak gutxiago erabiliko zituztela bikoteek, haurdunaldia gerora ekidin ahal izango zutelako pilula horrekin. Baina datuek ez dute hori islatzen.

2005etik 2009ra bitartean, pilula lortzeko errezeta behar zenean, abortuak %2 hazi ziren. 2009an salmenta askea onartu zuten eta lau urteko epean abortu tasa %1 jaitsi zen. Horrek adierazten du pilularen erabilera haurdunaldiak ekidin zituela. Hala ere, inkestek diotenez, pilula hartu zutenen %70ek beste antisorgailu bat ere erabili zuten, gehienek preserbatiboa; aldiz, erabilitako antisorgailuarekin izandako arazoren bat tarteko, pilula hartzea erabaki zuten hurrengo egunean badaezpada.

Salmenta askea hasi eta bi urtera Espainiako Antisorgailuen Elkarteak egindako beste inkesta batean ikusi zen emakumeen %3,9k besterik ez zutela erabili pilula azken hamabi hilabeteetan,

eta horietako inork (%0) ez zuen ohiko antisorgailu bezala erabiltzen. %0,1ek soilik erabili zuten bitan baino gehiagotan.

Pilularen inguruan zalantzak badaude. Batzuek diote abortiboa dela, baina ez da hala. Hurrengo eguneko pilula harremana izan eta ahalik eta lasterren hartu behar da eraginkortasun ahalik eta handiena lortzeko (hobe 24 ordu baino lehen, baina 72 ordura arteko eragina du). Espermatozoideak obulua ernaltzea ekiditeko funtzioa du, beraz, ez badago ernaltzerik, ez da umetokian ezartzen eta ez da haurdunaldirik ematen.

Horregatik, emakumea aurretik haurdun badago pilula hartzeak ez du ezertarako balio eta enbrioarentzat ere ez litzateke kaltegarria izango.

Pilularen inguruan mito ugari entzun izan dira. Adibidez, hormona bonba bat dela, eta, hortaz, txarra dela emakumearentzat. Egia da ez dela beste antisorgailu arrunt bat bezala erabiltzea komeni, larrialdietarako baita, baina emakumearentzat ez da arriskutsua, eta, beraz, medikuek edonorentzako eskuragarri izatea gomendatzen dute sexu osasunaren barruko «oinarritzko medikamentu» bezala.

Tabuak kentzeko bidea informazioa eskaintzea da, oraindik ere pilula hartzen duten emakume askok lotsa edo kulpasentitzen dutelako, planifikazio familiarra euren kontua soilik izango balitz bezala.

goa da ere lehen mailako ikasketak dituzten emakumeen artean (0,8) unibertsitate ikasketak dituztenetan baino (0,2).

ETORKINEK ARRISKU HANDIAGOA DUTE
«Harrigarria da ikasketa maila handieneko emakume etorkinen datuak Euskadikoen antzekoagoak ez izatea. Pentsatzen genuen ikasketa mailak neutralizatu egingo zuela etorkin izatearen efektua, baina ez dirudi hori babes faktore bat denik, eta ez du haurdunaldiaren borondatezko etendura arriskua murrizten. Horrek esan nahi du egoera sozioekonomikoa ez datorrela bat heziketa mailarekin. Badira emakume etorkin oso kualifikatuak, lan sektore prekarioetan lan egiten dutenak», azaldu du soziologoak.

Ikertzaileek ondorioztatu dutenez, emakumeen bizitza egoerak haurdunaldia gelditzeko era-

bakian eragina du. «Ikasketa maila aztertu dugu eta ikusi dugu maila altuko ikasketak dituzten emakume gutxiagoek abortatzen dutela maila baxuko ikasketak dituzten emakumeek baino. Berdina gertatzen da emakumeen jatorriari erreparatzen badiogu; bertokoek gutxiago abortatzen dute etorkinek baino», azaldu du soziologoak.

Nahiz eta ikerketa guztiz objektiboa den eta datuak aztertzerantz sartu ez diren, Gonzalez-Rabagok bere azterketa egin du. Horren arabera, faktore sozialek azaltzen dituzte ikerketan jasotako joerok, kolektibo batzuk zaurgarriagoak baitira eta haurdun gelditzen direnean, euren bizitza-egoera dela eta, neurri handiago batean erabakitzen baitute haurdunaldiarekin amaitzea. Eta bestetik, aurreko faktoreak daude, alegia, haurdun ez gelditzeko neurriak har-

tzen dituzten edo ez. «Kontua ez da abortuak saihestea, baizik eta gogoz kontrako haurdunaldiak ekiditea. Horretarako osasun sexuala hobetu daiteke, antisorgailuei buruzko informazioa emanez edo berauek eskuratzea erraztuz, batez ere informazio gutxiago duten eta neurri txikiago batean erabiltzen dituzten populazio taldeen artean».

Hau da, haurdunaldi aurreko faktore kulturalak aztertu behar dira: sexu heziketa, gizonen eta emakumeen arteko harremanak... Izan ere, emakume etorkinek gogoz kontrako haurdunaldiak sarriago izatea eragin dezaketen faktoreak dira. Horregatik Gonzalez-Rabako argi dauka: «Informazioa ezin bestekoa da desparekotasunei aurre egiteko, eta, ahal den neurrian, gogoz kontrako haurdunaldiak eragozteko, baina baita, behin haurdunaldia gertatuta, emaku-

me babesgabeenak Euskadiko osasun sistemak goiz abortatu ahal izateko dituen bitartekoak eta estalduron irismena ezagutzeko ere».

OSASUNERA SARBIDEA

Lantaldeak momentuz ez du ikerketarekin jarraituko, nahiz eta ikertu beharko liratekeen bestelako faktoreak badauden.

Orain arte osasunarekin zerikusia duten bestelako ikerketak egin izan ditu Opik taldeak. Adibidez, ikerketa baten arabera, etorkinek gehiago erabiltzen dituzte lehen arretako zerbitzuak eta larrialdietakoak, baina gutxiago arreta berezituak. Soziologoaren arabera, joera hori aldatuz doa etorkinak EAEn denbora igarotzen duen heinean. Hau da, pixkanaka, osasun zerbitzuen erabilera berdintzen joaten da bertako populazioarekin.





GAUR8 ireki gure leihoa



J. Danae | ARGAZKI PRESS

IKUSMIRA

SEGURTASUN ARDURADUN ARDURAGABEAK

Kopeta behar da gero, pentsatu du baten batek, nonbait, Segurtasun Nuklearreko Kontseiluko (CSN) presidente Fernando Martiren irudia ikusi-ta. Izan ere, kopeta galanta behar da letratzar ho-riei leku egiteko. Baina irudia ikusi gabe ere, on-dorio berera iritsi bide dira beste asko CSNk Nuclenorri Garoñako zentral nuklearra zabaltzeko aukera eman diola jakindakoan. Kontseilu horren ardura segurtasuna omen da, baina ardura gutxi erakutsi dute CSNko kideek herritarren segurta-

suna kolokan jarrita. Hartarako, duela zenbait urte jarduteko epea bukatu zitzaion zentrala berriz zabaltzeko betebeharrak aldatu dituzte segurtasuna zeregin nagusia omen duten arduradun ho-riek. Eta herritarren segurtasunari adarra jotzeraino muzin egiten diotela ikusita, beraien boron-datea errespetatzeko eskatzea larrera arrantzarra joatearen parekoa litzateke. Oraindik behin be-tiko erabakia falta da, ordea. CSNk hitz egin du eta orain Madrilgo Gobernuaren txanda da, CSNko kide gehienak izendatu zituen Gobernuaren txanda, alegia. Xabier Izaga Gonzalez



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA



ENEK

Elikagai ekologikoak sustatzeko kanpaina

ENEK sortu zenetik zortzi urte igarota, elikadura ekologikoaren sektoreak garapen esanguratsua izan du, 237 eragiletik 518ra pasatuz (%118,56 gehiago); azalerari dagokionez, garapena antzekoa izan da 1350,51 hektareatik 3232,6ra helduta (%139,36 gehiago). Edonola ere, garapenerako tarte handiari eusten dio gure sektoreak: egun, EAEko Nekazaritza Azalera Erabilgarriaren %1,6 besterik ez da ekologikoan lantzen. Urtez urte %10 inguruko garapena ematen da bai eragile kopuruan bai azaleran (behin betiko estatistikak kalkulatzeko badaude ere, aurrera daiteke 2015-2016 epean %8,37koa eta %8,8koa izan dela hazkundera, eragile kopuruari eta azalerari dagokionez, hurrenez hurren).

Euskaldunon artean elikagai ekologikoen kontsumoa zer-nolakoa den jakiteko askozaz datu gutxiago ditugu. Joera nondik norra doan ezagutzeko badago pare bat aztar-

na, ordea. Lehena, Ekokontsumo Federazioak ematen duena. Federazioan batzen dira mota guztietako produktu ekologikoen kontsumorako antolatutako herritar elkarteak (elikaduratik kosmetika edota etxeko garbikarietaraino, beren lokaletan ia erabat bizimodu jasangarria egiteko produktu-sorta eskaintzen dute). Gasteizko BioAlai, Donostiako Otarra, Ajangizko LurGozo, Durangoko Marisatsa eta Bidasoako Bidazi elkarteek osatzen dute Ekokontsumo Federazioa, 1.790 familia eta norbanako batuz. Bada, elkarte guztion artean 1.904.692,88 euroko gastua egin zuten (2009an 1.000.000 eurokoa soilik egin zuten). Bistan da herritarren artean elikagai ekologikoekiko interesa haziz doala. Estatuko datuek ere hala azaleratzen dute: 2014-2015 epean elikagai ekologikoen kontsumoa %24,5 hazi zen ("Caracterización del Sector de la Producción Ecológica Española, en términos de valor y mercado", 2015. Mapama).

Elikagai ekologikoen inguruko interesa gorantz doala adierazten duen beste aztar-na elikadura-mota hau eskaintzen duten saltokien ugaltzea da. Momentu honetan 32 saltoki daude ENEKEN izena emanda. Izan ere, elikagai ekologikoak pisura eskaintzen dituzten establezimenduentzat baldintza bat da ziurtapena izatea, bezeroen esku jartzen dituzten produktu ekologikoen trazabilitatea jatorritik azken kontsumitzaileara arte mantentzen dela bermatu aldera.

«IZAERA BIZIA BERRESKURATU» KANPAINA

Ekodenden ugaritzeak erakusten du jendarteak geroz eta gehiago bilatzen dituela ingurumenarekin abegitsuak eta substantzia toxikorik gabeak diren elikagai eta produktuak. Tankera honetako saltokiek funtzio garrantzitsua betetzen dute produktu ekologikoen inguruko ezagutzak zabaltzeko eta beste kontsumo eredu baten beharraz kontzientziatzeko. Askotan, saltokiok dira kontsumitzaileek elikadura ekologikoarekin lehen kontaktua izateko bidea. Esan gabe doa, horrenbestez, informazio puntuak ere badirela. Hori dela eta, ENEKEK jarraipena eman nahi izan dio udazkenean hiriburuetan bultzatutako "Izaera Bizia" kanpainari euskal geografian zehar sakabanaturik dauden 32 ziurtagiridun saltokietan "Izaera Bizia berreskuratu" kanpainarekin. Ekimen honen helburua bikoitza da: alde batetik

elikagai ekologikoen sustapena egitea, eta, bestetik, saltokioi ikusgarritasuna ematea. Ekimenaren baitan, otsailaren 19ra arte bertoko elikagai ekologikoez osatutako saski bat zozkatuko da egunero. Zozketan parte hartzeko, www.izaerabizia.eus webgunean prestatu den formularioa betetzea besterik ez dago. Goizeko hamarretan, irabazlearen izena argitaratuko da egunero ENEKEN Facebook atarian, saskia kanpainan parte hartzen duten saltokietariko batean jaso ahal izateko.

Sari potoloago bat ere badago, bi lagunentzako asteburuko egonaldia nekazaritza ekologikoan jarduten duen landetxe batean. Ekoasteburu horrek, egonaldiaz gain, elikadura eta bizimodu ekologikoarekin lotutako hainbat ekintza ere eskainiko dizkio irabazleari. Zozketan parte hartzeko, ENEKEN ziurtagirutako dendetariko batean erosketa bat egin besterik ez dago. Erosleak kode bat duen txartel bat jasoko du, zozketan parte hartu ahal izateko argibide guztiak azaltzen dituen. Bestela ere, www.izaerabizia.eus webgunean topa daitezke argipenak. Hurbildu elikagai ekologikoetara, berreskuratu izaera bizia. Irabazteko arrazoiak besterik ez dituzu topatuko.

ENEK
Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoaren Kontseilua



Huntza taldeko kideak, ezker-eskuin: Aitor Huizi, Josune Arakistain, Uxue Amonarriz, Peru Altube, Aitzol Eskisabel eta Inhar Eskisabel. Gorka RUBIO| ARGAZKI PRESS

infraganti HUNTZA

Bilboko unibertsitate giroan elkartu, talde bat osatu, erromerietan diskoa grabatzeko dirua bildu eta diskoa kaleratu. Horixe da Huntza, lagun taldea eta musika talde hasiberria. Diskoa kaleratzerako, baina, «Aldapan gora» abestiak bide propioa egina zuen; pentsa, sare sozialetan 927.000 ikustaldi baino gehiago ditu dagoeneko.

Ataunen harra-patu ditugu, la-runbat arratsal-dez, entseatzen. Izatez punta desberdineta-koak dira eta orain bakoitza etxetik aparte ari da ikasten, bakoitza bere ertzean. Ez da hain lan erraza, beraz, Huntza musika taldeko kideak elkartzea.

Zergatik Ataunen? Aitzol –gitarra– eta Inhar Eskisabel –baxua– anaiak bertakoak direlako eta Ataungo Udalak entseatzeko tokia eskaini dielako.

Guztira sei musikarik osatzen dute Huntza taldea: aipatutako Ataungo Eskisabel anaiak; Josune Arakistain, Lasturko trikitila-

ri eta abeslaria; Uxue Amonarriz, pandero jotzaile eta abeslaria, eta Aitor Huizi, biolin jotzailea, biak hernaniarrak; eta Peru Altube, bateria, Arrasatekoa.

Ertzetako taldea da, beraz, bai musikarien jatorriko herriak kontuan hartuta eta baita beren musika ibilbideak begiratuta ere. Josune Arakistainek bide propioa egina du trikitiaren munduan. 2013an eta 2014an Euskal Herriko Trikitilari Gazteen txapelketa irabazi zuen eta plazan asko aritutakoa da. Uxue Amonarriz pandero jotzaileak ere lotura estua izan du trikitiarekin txikitatik. Aitor Huizi biolin jotzailea betidanik erakarri-

izan du herri musikak eta de-zente aritzen da dantza taldeen eta herri musikaren bueltan. Eskisabel anaiak Indarra taldean aritutakoak dira eta Peru Altube arrasatearrak Garraxi taldean eman zituen lehen pausoak. Egun, Huntza taldearekin ez ezik, The Potes taldearekin ere aritzen da baterian.

Punta batetik edo bestetik etorri, halako batean elkartu egin ziren, Bilboko unibertsitate giroan, eta korapilatzen-korapilatzen, Huntza musika taldea josi zuten.

Lehen korapiloa Josune Arakistainek eta Aitor Huizik egin zuten. «Josune eta biok Bilboko triki-poteo batean topatu ginen.

Josune trikitiarekin atera zen, eta, ni, biolinarekin. Ez genuen elkar ezagutzen, musikak elkartu gintuela esan daiteke. Bat-batean, elkarrekin jotzen hasi ginen», akordatu da Huizi.

«Nire kanta bat jotzen hasi nintzen, 'Iñundik iñoare' abestia, eta Aitorrek segitu egin zidan biolinarekin. Inprobisatzeko sekulako gaitasuna zuela ikusi nuen eta beregana hurbildu nintzen, talde bat egin nahi nuela esan eta ea animatuko ote zen galdetuz», zehaztu du kontaketa Arakistainek. Gainera, trikitilariak aitortu du buruan zuen amets edo desio bat: «Betidanik neukan buruan trikitia, biolina eta gitarra elektrikoa elkartzeko nahia. Ez nekien nola egin, baina desio hori banuen. Eta Aitor ikusi nuenean triki-poteoan, segituan hurbildu nintzen beregana».

«Triki-poteora beti biolinarekin ateratzen nintzen eta jende asko erabat harrituta geratzen zen, biolina ez delako horrelako giroekin lotzen. Biolinak herri musikan bere tokia daukala aldarrikatzeko nire modua zen», gaineratu du Huizik.

Horixe, beraz, lehen korapiloa. Aitor Huizi eta Aitzol Eskisabel ikasle egoitza berean bizi ziren eta bertako musika bandan jotzen zuten. «Nik gitarrista bat

behar nuen eta banekien Aitzol ondo moldatzen zela. Taldearen ideia aipatu nion eta baiezkoa eman zidan. Era berean, Aitzolek, Peruk eta hirurok Bilbon elektrotzaranga batean jotzen genuen elkarrekin eta Peruri aipatu genion ideia». Bigarren korapiloan harrapatu zituen Huizik, beraz, gitarra eta bateria.

Uxue Amonarriz eta Josune Arakistain ikaskideak dira Biologian eta Amonarriz korapilatzeaz, beraz, trikitilaria arduratu zen.

«Azkena, ni. Baxua utzita nengoen, gutxi jotzen nuen. Kontzertu pare baterako norbait behar zutela esan zidaten. Entzun nuen sanferminetan jo behar zutela eta tentatu egin ninduen eskaintzak», azaldu du Inhar Eskisabelek.

ERROMERIZ ERROMERI

Huntza taldeak hasieratik bere kanta propioak izan ditu, baina musika merkatuan kanta horiek erakusteko aukerak falta zitzaizkion eta erromerien zirkuituan hasi zen taldea bere bidea egiten, 2016ko uda bueltan. «Kanta batzuk bagenituen eta diskoa atera nahi genuen. Baina horrek finantzazioa eskatzen du eta diskorako dirua biltzeko hasi ginen plazetan erromeria giroan jotzen», esan du Arakistainek.

Erromerietako esperientzia «oso gogorra» dela diote taldeko kide guztiek aho batez. «Ordu asko jo behar dira segidan, musika ekipoak oso txarrak izaten dira, gaizki ordaintzen dute, desorduetan aritu behar duzu... Egia esan esperientzia gogorra izan da, baina oso polita era berean. Gertatu zaigu plaza goraino beteta topatzea edo dozena erdi bat pertsonaren aurrean jo beharra. Denetarik aurkitu dugu», segitu du Inhar Eskisabelek.

Huntza musika taldea hasieratik izan da Huntza, baita erromeria giroan aritu izan denean ere. «Etxeko sukaldean gosaltzen ari nintzen egun zoragarri batean okurritu zitzaidan, leihoetik huntza ikusten nuelako. Emanaldi bat genuen eta izen bat behar genuen eta izen horixe proposatu nien taldekideei, eta gustatu egin zitzairen. Egia



Huntza taldekoak, entseatzen. Eskisabel anaiak Ataungoak dira eta bertako Udalak utzitako lokal batean aritzen dira.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

osoa esaten hasita, mahai gaine-an beste proposamen bat zegoen: 'Kafe Urdina'. Erabaki nuen kontraproposamen on bat eraman behar nuela, bestela izen horrekin geratzeko arriskua genuen-eta!», kontatu du umorez Aitzol Eskisabelek.

Huntza landare igokaria da, espero ez den tokian ere gora eta gora egiten duena, gogor eusten eta korapilatzen delako zuhaitzetan, hormetan, harkaitzetan... Akaso izenak markatu ditu taldearen lehen pausoak. Gora eta gora, diskoa kaleratzeko arrakastaren tontorra ukituta zeukan-eta. Joan den abenduan kaleratu zuen taldeak lehen diskoa, "Ertzetatik" izenekoa. Ordurako, baina, Huntza "Aldapan gora" abesten zuen taldea zen.

«Erromerietan hasi ginenerako abesti bat genuen sarean, martxoaren 8an zintzilikatu genuena: 'Harro gaude'. Emakumeak plazan egindako bidez ari da abestia. Harrera ona izan zuen, baina batez ere inguruko jendearengana iritsi zen. Talde bezala existitzen ginela esan nahi genuen, besterik gabe», gogoratu du Arakistainek.

Uda guztia erromeria eroan eman eta gero, uda bukaeran sartu ziren grabazio estudioa, Haritz Harreguyren Higain es-

tudiora. «Grabaketa oso azkarra izan zen, presaka bezala. Gure asmoa zen besterik gabe gure taldea ezagutzera ematea, ez genuen espero gerora etorri dena», esan du Huizik. «Etorri dena» dioenean "Aldapan gora" abestiaren arrakastaz ari da. Aste honetan Youtuben 927.000 ikustaldi baino gehiago zituen abestiaren bideoklipak.

Haritz Harreguyk, Higain estudioaren arduradunak, Huntza taldearen abesti bat pasatu zion Euskadi Gazteako Joseina Etxeberriari, talde berri batekin lanean ari zela eta ea zer iruditzen zitzaion. «'Aldapan gora' abestia lehena zen zerrendan, alfabetoaren arabera ordenatuak zituelako Haritzek ordenagailuan. Une horretan hori zen prestatuta zeukan abesti bakarra eta horixe bidali zion Joseinari. Ez gehien gustatzen zaigun abestia delako, besterik gabe, kasualitatez edo». Aparra bezala egin zuen gora eta gora abestiak Euskadi Gaztean. «Gu harrituta ginen abesti

horrek egin zuen bidearekin. Ez genuen espero. Eromena izan zen. Aste pare batean sekulako arrakasta izan zuen. Abestia hain ezaguna egin zenez, bideo-klipa egin eta sarean zintzilikatu genuen, jendeak etengabe eskatzen zigulako», segitu du Arakistainek.

"Aldapan gora" abestiak hankaz gora jarriko ditu Huntzakoak. Ja ez dira erromeri talde ezezagun bat, «ezin dugulako izan». Pozik daude, noski, arrakastarekin, baina gaintituta ere badaude, arrakastak arrastaka eraman dituen sentsazioarekin. Abesti

horrek bide propioa egin du eta tirakatira eraman ditu atzetik.

«Orain jendea espresuki joaten da gu ikustera, ordaindu egiten du gu ikustea-gatik eta bat-batean erabat profesional jardun beharra sentitzen

dugu. Sekulako aurreikuspenak sortu dira gure taldearen inguruan eta gu hasiberriak gara, joan den udan hasi ginen plaze-tan. Beldur pixka bat sentitzen

dugu, ez dakigulako jendeak espero duena emango ote dugun», hitz egin du garbi Josune Arakistainek.

«EZ GARA ABESTI BAKARRA»

"Aldapan gora" abestiak airean eraman ditu, hegan. Baina uneren batean karga ere bihurtu zaie. «Guk hamabi abesti ditugu eta badirudi abesti bakarra dugula, abesti bakarra garela. Gainera, abesti hori ez da gure abestirik onena», esan du Huizik. Puntu horretan, baina, denak ez daude ados. «Nik lehen aldiz 'Aldapan gora' entzun nuenan –ni taldean sartu baino lehen– izugarri gustatu zitzaidan eta harrapatu egin ninduen. Niretzat sekulako abestia da», zehaztu du Inhar Eskisabelek.

Taldeakide guztiak ados daude gauza batekin: «'Aldapan gora' abestiari asko zor diogu eta ez gara hipokritak izango abestia ez dela ona esanez. Noski gustatzen zaigula, beste abesti batzuk bezala. Baina gure bidea markatu duen abestia da zalantzarik gabe», gaineratu du Uxue Amonnarrizek.

Zerotik ehunera pasatu diren sentsazioa daukate. Irratian eta sare sozialetan bat-batean eta oso azkar hazitako taldea da, eta orain plazan defendatu behar dute beren lana. Alderantzizko bidea dirudi.

«Lasaitasunez hartu nahi dugu, hilabeteen hiruzpalau emandaldi egingo ditugu, ez gehiago. Dagoeneko ezezkoak ematen ari gara. Baina denak ikasleak gara, bakoitza punta batean ari gara eta ez da erraza», esan du Arakistainek.

Lainoan sentitzen dira, baina hankak lurrera ekartzen dituzte indarrez, gauzak garbi dituztelako. «Musikarekin gozatzen segitu nahiko genuke, kontzertuetan ondo pasatzen. Guk ondo pasatzen badugu, jendeak ondo pasatuko du».

Hori bai, oraindik ez dute ikasi parrandan daudela "Aldapan gora" abestia patxadaz entzuten eta gozatzen. «Ni tabernatik ateratzen naiz abesti hori entzuten dudanean», aitortu du Huizik. •

amagoia.mujika@gaur8.info

Heziketa txarrari

Maidar lantzi

Heziketa txarrari eskainiko diot zutabe hau. Mezu bat bidali, intentzio guziarekin, lan bat edo bertze edozein gauza esplikatzuz, eta erantzutea burutik pasatzen ez zaie-nei, ez dizut erraten «milesker» bat, edo-zer. Kaletik paseatzen, herrian bertan, nor-baitekin gurutzatu (ezaguna edo ezezaguna), agurtu eta begiratu ere egiten ez dutenei (hau gertatzen zaidanean, pau-so batzuk urruntzean madarikazioen bat botatzen diet ahopeka).

Trenetik jaistera zoazela, itxaron gabe bultzaka igo eta bidea mozten dutenei. Umearekin pailazoak ikusten, sudurgo-rriekin argazkia ateratzeko gerra bat piz-

ten dutenei, norbere haurrari (edo burua-ri) soilik erreparatuz.

Urte luzetan paristar izandako ikaskide batzuek kontatzen dute bertan kale erdian hil zaitezkeela inork lagundu aitzinetik. Bat igogailu batean harrapatuta gelditu zen uda beteko egun sargori batean. Beroz akabatzen, kabina gardeneko kristala kol-pekatzan zuen indarrez, baina zentroan egonagatik, presaka harat-honatean zebil-tzan hiritarrez inguratuta, ez zen inor gel-ditzen. Eskoziar turista bati esker lortu zuen azkenean ateratzea! Bertzeari errieta egin zioten metroko eskaileretatik behera muturka erori zenean, bidea oztopatzen zuelako. «Begiratu non barna zoazen!».

Nola ez, biribilguneetan eskuinetik au-rreratzen dutenei, lasai-lasai mokadu bat jaten, barkamen eskeko keinu arrastorik gabe, kamioiaren buztan luze-luzea sartu bitartean denak geldituz. Denda baten ata-rian, zu ateratzen, eurek sartzen, «ikusezi-na al naiz?» galdetzera eramaten zaituzte-nei. Txakurrek buztana mugitzen dute behinipin. Ekitaldiren batean, jende arte-an, aterkia zabalik bakarrik baleude bezala jiratu eta ia begia ateratzen dizutenei.

Uf, ze gustura gelditu naizen! Zutabe hau zuentzat da. A, eta inork aurpegiratu baino lehen nire buruari aplikatzen ahal diodala hau dena, nirea ez da heziketa txa-rra; despistatua naiz. •

Ez gaude bakarrik

Saioa Iraola

Fotosintesia ere arriskuan den mundu honetan, naturaren eta bizitzaren aurkako gerra bizi du-gu. Ikaragarritzko krisia. Horren aurrean, batzuk, aberatsak, gero eta abe-ratsago dira; sozialdemokratek, aldiz, dauden soberakinak banatzeko apustua egiten dute, eta besteek, ezkerak (oro har) kasu, ez dute alternatiba hegemoni-ko eta adosturik garatzeko nahikoa in-dar metatu, nahiz eta saiakera etenga-bea izan. Horrela, jendarte abandonatu, teknologizatu, despolitizatu eta bakartu bat daukagu, edo gara.

Horregatik, iruditzen zait inoiz baino garrantzitsuagoa dela jardun politikoa, kolektiboki ekitea, alegia. Aktibismoak “ni” tik “gu”-rako jauzia egiten lagun-tzen digu, jendartean bakarrik ez gaude-la eta kolektibo baten parte garela senti-tzen. Nahiz eta, militantzia ereduak aldatzen ari diren, Yayo Herrero ekin-tzaile ekofeministari berriki entzunda-ko ideia bat ekarri nahiko nuke gogora: «militantziak ongizate eta segurtasun espazio bat sor lezake; ez da kentzea, ba-da jardun politiko seguru eta goxo bat izateko espazioak sortzea». Eta gure mi-


litantzia feministan horren aldeko apustu egiten dugu, «munduan egoteko modu» gisa bizita.

Beraz, muturreko prekarizazioa eta indibidualismoa ezaugarri dituen gu-dan, antolaketa eta borrokaren apologia egin nahiko nuke. Euskal Herriko bazte-rretan, su txiki ugari ditugu piztuak; neguko hotzetan beroa ematen digute sugarrek, eta ilunean, berriz, argia.

Gaurkoan, feministok, 14.15ean, kan-tuz lehertuko ditugu espetxeetako hor-mak, eta besarkatuko zaituztegu inda-rrez. •

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



HERMENEGILDO OTERO. ESPAINIAKO LIBURUTEGI NAZIONALA

HERNANIKO UDALETXEA, KARLISTEK BONBARDATUTA

1875eko iraileko 15ean, armada liberalak Oiartzun hartu eta bertako telegrafo etxea birrindu zuen. Biharamunean, karlistek Hernani bonbardatu zuten Santiagomenditik. Jaurtitako granadetako batek udaletxea jo eta liberalek aldamenean zuten munizio-parkea leherrarazi zuen. 27 lagun hil eta beste 17 zauritu ziren, soldadu liberalak eta zibilak. Gerrako azken hilabete haietan artilleria karlistak Donostia, Getaria, Hernani, Pasaia eta Errenteria bonbardatu zituen. Bonbardaketa haietako batean, 1876ko urtarrilaren 20an, etxeko leihotik sartutako granada batek Bilintx zauritu zuen. Zenbait hilabeteren buruan hil egin zen, zaurien ondorioz. Argazkia Hermenegildo Otero donostiarrak egin zuen. Besteak beste, Donostiako harresiak eraitsi zituzteneko bere irudiek famatu zuten.

GARA URTEKARIA 2016

GIZARTE ZIBILAK ARDURA HARTU DU

URTE EZIN BIZIAGO
BATEKO GERTAKIZUN
GARRANTZITSUENAK
EZ AHAZTEKO, LIBURU
ATSEGIN BATEAN BATUTA
DAKARTZAGU:
DOKUMENTUAK,
IRUDIAK,
GRAFIKOAK,
KRONOLOGIAK,
KRONIKAK...
216 ORRIALDE

A N U A R I O
2 0 1 6
U R T E K A R I A

LA SOCIEDAD CIVIL TOMA LA INICIATIVA
GIZARTE ZIBILAK ARDURA HARTU DU



GARA

Eta Gai degia-ren kolaborazio berezia

Euskal Herriaren
erradiografia
sozioekonomikoa:
demografia, garapena,
ekonomia, langabezia,
berrikuntza...



 gai degia

11,95 €
soilik

Hilaren 11n
eta 12an,
larunbat eta
igandean

